

416.ZENBAKIA-AZKOITIKO HERRI ALDIZKARIA -2022KO-URTARRILA



# MAXIXATZEN

ZENBAKI HONEKIN BATERA  
+ GUKA ALDIZKARIA



IBAN LARRAÑAGA

## ERREMONTAAREN ZESTAN

INNOVA  
AZPEITIA

HORTZ KLINIKA

Jose Artetxe 5 • 943-02 59 55



...erantzuna gara ...ALBERDI gara



943 16 98 78

info@alberdi-inmobiliaria.com  
Trenbidearen Zumardia, 3 AZKOITIA

## Pentsatu al duzu sekula zure gustoko etxebizitza eraikitzea?



3 logela - 1 bainugela - 577m<sup>2</sup>

Salgai 350.000€

AZKOITIA - MARTIRIETA AUZOA

Martirieta auzoan dagoen baserria, ikuspegi  
paregabeekin



4 logela - 4 bainugela - 340m<sup>2</sup>

Salgai 200.000€

AZKOITIA - URRATEGI BIDEA

Urrategi Bidean, bi bizitzako etxea eraikitzeko  
lurzoru urbanizagarri erdia



## Guk lagunduko dizugu



Eskaintza osorako bisita ezozu: [www.alberdi-inmobiliaria.com](http://www.alberdi-inmobiliaria.com)



# MAXIXATZEN 416

2022-URTARRILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:  
ALEX BERASATEGI

## Aurkibidea

- |    |  |    |   |
|----|--|----|---|
| 5  | <b>Iritzia</b> Anartz Izagirre,<br><i>Euskararen errezeta</i>        | 25 | <b>Iritzi grafikoa</b> Itxaro Iraeta  |
| 6  | <b>Hitz bitan</b> Lourdes Elortza, irakasle<br>oiha                  | 26 | <b>Erretratua</b> Visi Gutierrez, Zubiberri<br>gimnastika erritmiko taldeko<br>entrenatzailea |
| 8  | <b>Izpiak eta hizkiak</b> Javier<br>Beristain, <i>Trikitilaria</i>   | 30 | <b>Plazan bazan</b>   |
| 10 | <b>Iritzia</b> Juan Ramon Alberdi,<br><i>Deiturak eta egiturak</i>   | 32 | <b>Atzera Begira</b> Antzokiak eta<br>zinema aretoak  |
| 12 | <b>Erreportajea</b> <i>Sektorea eta<br/>ekoizleak, lehen lerroa.</i> | 35 | <b>Iritzia</b> Kari Alberdi, <i>Kolorearen<br/>zientzia</i>                                   |
| 20 | <b>Elkarrizketa</b> Iban Larrañaga,<br>erremontista                  | 36 | <b>Klik!</b> 2021ari errepasoa  |
| 24 | <b>Bazkidetza eta Zakelmari</b>                                      | 44 | <b>Iritzia</b> Sara Rodriguez, <i>Lokartuak</i>   |
|    |  | 46 | <b>Euskara</b> Aitor Arruti, <i>Alde erantzira<br/>Bertsoa paperean</i>                       |

MAXIXATZEN

TOKIKOM

### Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea  
Koop. Elk.  
Soreasu 1. 20730  
AZPEITIA  
943-85 36 17  
maxixatzen@maxixatzen.eus  
www.maxixatzen.eus

### Erredaktoreburua

Ane Olaizola

### Erredaktore taldea

Anartz Izagirre  
Andoni Elduaien  
Ane Olaizola

### Diseinu arduraduna

Itxaro Iraeta

### Publizitate arduraduna

Egoitz Azkoitia

### Zenbaki honetako

### kolaboratzaileak

Mireia Olariaga  
Javier Beristain  
Juan Ramon Alberdi  
Rina Cabeza

Kepa Alberdi

Kari Alberdi

Gorka Larrañaga

Alex Berasategi

Sara Rodriguez

Aitor Arruti

Asier Garate Alkorta

### Administrazio

### Inprimategia

Antza Inprimategia  
(Lasarte-Oria)

### Lege Gordailua:

SS-706/97

ISSN: 1137-8891

Tirada: 850 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



AZKOITIA  
Udala





# PUBLIZITATEA



**YOKOKIROLAK**  
www.yokokiolak.com  
Kale nagusia 90 - Azkoitia

**EGUZKI**  
belardenda  
diestetika  
kozmetika naturala



Kale Nagusia 67 943-50 34 47 AZKOITIA  
Urbetare 9 bis 943-15 00 23 AZPITIA

Web proiektuak  
Software Ingeniaritza

**elkarmedia()**

info@elkarmedia.eus  
943-85 08 74

**etk**

Informatika Zerbitzuak  
943-02 63 29  
www.etkinformatika.com



arkitekturaestudioa  
santaklara kalea 35 | 943083487  
www.brarkitektura.com



Ituriondo, 7 • 943-02 56 88  
Kale Nagusia, 87 • 943-85 20 98  
AZKOITIA



NAGUSIA 81 • 943-08 30 32  
www.tta-kun.com • azkoitia\_ttakun@hotmail.com



Kale Nagusia, 41 • 943-10 52 62

**ETXEZA  
TABERNA**

Etxeza Etxea, Z/G • 943-85 20 31

**artelan**

Txedia Arango  
Tel: 943 01 13 41  
607 71 98 84

- Marrazkia
- Olio-pintura
- Akusatilo
- Pastela-pintura
- Itzi
- marrazkia
- Zeramikak
- Radifina
- Estufak



**zur**

OGIARTEKOAK  
SANDWICHAK ETA HAZIARTEKOAK  
ENTZALAK  
PAGAK  
GARAGARDO ETA ARDO ESKANTZA ZABALA  
TERREZA HANDIA ZUZENEKO EMANALDIAK

KALE NAGUSIA, 68 • 943-85 12 75

ARTISAU PEZAK  
ENTZALAK  
FRITIDAK  
PLAZA KONTRATUAK  
RADIOAK  
OGIARTEKOAK  
ARDO ESKANTZA ZABALA  
SOLU ETA ARDO ENFO  
PAREGABEAK  
LAPURGIFETAN 60 M2 ARTE BERTTA

**LATZ**  
TABERNA

KALE NAGUSIA, 55 • 943-85 13 19



**ALDAKO**

**SARE ETA INFORMATIKA  
ZERBITZUAK**

SAREAK, IRTEERAK ETA  
ORDENAGAILU, MUGIKOR  
ETA TABLET KONPOKETAK

Kale Nagusia, 46 • 20720 Azkoitia  
Tel. 943-08 36 14 • 629 09 52 75  
aldako.informatica@gmail.com



**IBAIONDO BERRI  
53 ETXEBITZA BERRI**

www.aranbarri.com

**ARANBARRI**

# Euskararen errezeta



ANARTZ IZAGIRRE

**M**arrazki bizidunak euskaraz ikusi ahal izango dira Nafarroan ere, ETB3ren bitartez, hemendik aurrera. Batzuentzat aukera dena besteentzat mehatxu bilakatu da lurralde historikoan, eta gure hizkuntzaren hedapenak, beste behin, bere onetik ateratu ditu gure herrialdeko elebaker euskarafoboak. Hala adierazi zuen Sergio Sayas UPN alderdiko diputatuak Espainiako Kongresuan: "Nafarroan ETB3 sartuta, *reset* egin nahi dute burmuinean".

Eta nik diot: oxala hala balitz. Batzuetan niri ere *reset* egitea gustatuko litzaidake, gure hizkuntzak merezi ez dituen irain desegoki horiek gogoratu beharrik ez izateko. Marrazki bizidunetako unibertso utopiko ero batean bizitzea gustatuko litzaidake, non herritar ororen hizkuntza eskubideak ez diren gudu-zelai batean erabiltzeko argudio, non nire ilobek kalitatezko marrazki bizidunak euskaraz kontsumitzeko aukera izango duten, Euskal Telebistan zein plataforma digitaletan.

Kontsumo ohiturak aldatzen ari dira, eta gaur egungo gaztetxoek Internetez kontsumitzen dituzte beren gustuko eduki gehienak. Ildo horretatik, Pantailak Euskaraz plataformak "larrialdi egoeraz" ohartarazi zituen herritarrek Eusko Legebiltzarrean, eta erakutsi zuten egun sona handiena duten plataforma digitaletan hutsaren hurrengo dela euskarak duen presentzia. Eta, beraz, haurrek, gaztetxoek nahiz baita helduek ere, malabareak egin behar dituzte kalitatezko marrazki bizidunak euskaraz kontsumitzeko.

ETB3 Nafarroa osoan zabaltzeak ez du ezer soluzionatuko, ez; besteak beste, erakutsi delako Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan kate hori ikusgai egon arren, haur askok bestelako kateetan ikusten dituztela marrazkiak, eta nork daki, baliteke kalitate eza izatea horren arrazoietako bat. Baina horretarako aukera izateak, behinik behin, argi izpi bat sortzen du jendartearen. Euskarazko erreferentziarik ez izateak gure hizkuntzarekiko arrotz sentiaraztea dakarrelako, ematen duelako euskara ez dela aisialdirako hizkuntza bat, kontu akademiko hutsala baizik.

Musa Anter idazle kurduak esan zuen moduan, nire hizkuntzak zure estatuaren oinarriak astintzen baditu, horrek esan nahi du, ziur asko, zure estatua nire lurrean eraiki duzula. Eta argi dago ikus-entzunezkoak, prentsa, literatura eta abar euskaraz kontsumitzeak deseroso sentiarazten dituela zenbait. Izan ere, badirudi *kaxa inozo* gisa ezagutzen den gailu hori euskalduntzea, hainbaten Akilesen orpo bilakatu dela. Guretzat, berriz, ezinbestekoa da Popeyek, Maya erleak, Berebiziko espioiek eta Scooby Dook euskaraz jakin dezaten, gure seme-alabek eta ilobek beren hizkuntza anitza bezain praktikoa dela barneratu dezaten. Pantailek euskaraz behar dutelako izan, herrietako kaleak erdaraz izan ez daitezten. ■■■

**PANTAILEK EUSKARAZ  
BEHAR DUTE IZAN,  
HERRIETAKO KALEAK  
ERDARAZ IZAN EZ  
DAITEZEN**

# "Ia 40 urte irakaskuntzan aritzeko, garrantzitsua da bokazioa izatea"

**TESTUA ETA ARGAZKIA:** MIREIA OLARIAGA

Lourdes Elortzak *Txanpañak* (Azkoitia, 1958) gaztetatik izan du irakasle izateko grina, eta helburua bete du. Ikasketak amaitutakoan Juaristi enpresan hasi zen lanean, baina salestarrak Floreagara joan zirenean, dudarik ez zuen izan, eta irakasle sartu zen 1982. urtean. Orain, ia 40 urte beranduago, agur esan dio hain maitea duen lanbideari.

**Gaztetatik izan duzu irakasle izateko grina. Noiz piztu zitzaizun horretarako nahia?**

Betidanik jakin izan dut ikasketak nondik bideratuko nituen, umeak asko gustatzen zaizkidalako. Garai hartako *COU* bukatu nuenean, Floreaga Ikastetxean Mertzenarioak zeuden, eta ez nuen aukera izan han lanean hasteko. Hori horrela izanda, bitartean, Juaristi enpresan hasi nintzen lanean, bizimodua aurrera atera beharra zegoelako. Hori bai, Floreagan lanean hasteko zerrenda moduko bat zabaldu zuten, eta orduan eman nuen izena; salestarrak eman zidaten irakasle lanetan hasteko aukera. 1982. urtean sartu ziren salestarrak Floreagan, eta ni ere orduan hasi nintzen han lanean.

**Nola gogoratzen duzu lehenengo egun hura?**

Urduritasuna zen nagusi. Gelak oso zaharrak ziren. Lehenengo begiratuan "non sartu naiz?", galdetu nion nire buruari, baina guztiok egoera berean geundela ikusita, aurrera jarraitzea besterik ez zegoen. Gogoratzen dut hango jostailuak eta mahaiak oso egoera kaskarrean zeudela, eta hobe teknologiaz hitz egiten ez badugu.

**Beti izaten da ondo gordeta geratzen den egunen bat.**

Egun asko ditut buruan. Oso gogoko ditut inauteriak eta Euskararen Eguna. Egun horietan barruan zerbait mugitzen zait, eta emozioak, askotan, gain hartzen dit. Egun horiez gain, gurasoek eskerrak eman izan dizkιδaten momentuak ere aipagarriak dira. Beren seme-alabei laguntzea izan da nire helburua, eta modu batean edo bestean lagundu izanak gauzak ongi egin ditudan sentsazioa ematen dit.

**Zailtasunak izaten dira nonahi. Zerk bultzatu zaitu urteetan jarraitzera?**

Gakoa umeen naturaltasunean dagoela esango nuke. Askok ez zaituzte irakasle moduan ikusten, eta zentzu horretan, mugak markatzea garrantzitsua da. Umezalea izatea ez da derrigorra, baina barruan izan behar duzu uneoro zerbait, lanbidea maitatzera bultzatzen zaituena.

**Tutore izan zara urteetan. Ikasle ohien maitasuna antzematen al duzu?**

Despistatu samarra naiz, eta orain asko ez ditut ezagutzen. Esaterako, aurreko batean mutil batek kasu egin zidan: hark zer moduz nengoen galdetu zidan, eta nik betidanik ezagutuko banu bezala erantzun nion. Aurpegia ezaguna egiten zitzaidan, baina ez nekien oso ongi zein zen. Handik gutxira jakin nuen norekin hitz egin nuen.

**Ia 40 urteren ondoren, agur esan diozu irakasle lanari. Zerk bultzatu zaitu erabaki hori hartzera?**

Errelebo kontratua egiteko aukera nuen, eta hortik hasi zen erretirorako bidea. Azken urtea nahiko eskasa izan zen COVID-19a medio, eta zera pentsatu nuen orduan: "Orain edo inoiz ez". COVID-19aren izarriari, gainera, jaiotze tasa baxua gehitzen badiozu, erantzuna garbia da.

**Ikastetxean lan egin zenuen azken eguna irailan izan zen, ezta?**

Bai. Oso hunkigarria izan zen. 5 urteko umeekin nengoen, eta bat-batean nire izena entzun nuen. Gelatik irten nintzenean, han zeuden nire azken taldeko umeak lore sorta eskuetan zutela. Begiak busti zitzaizkidan. Jendea agurtu nuen, baina ez nintzen oso kontziente egoeraz. Egun batzuk pasatu zirenean itzuli egin nintzen eskolara, eta orduan guztiekin lasaiago egoteko aukera izan nuen. Oso pertsona berezia sentitu nintzen. Gustura nago han eman dudanarekin.

**Eta orain, zer?**

Planik ez zait falta. Frantsesa ikasten hasi naiz, euskal dantzetara joaten naiz, erlaxatzeko pasiera ugari egiten ditut eta ahal dudanean mendira ere joaten naiz. Niretzako denbora dudala esan dezaket orain. ■■■



# Trikitilaria

**ARGAZKIA ETA TESTUA:** JAVIER BERISTAIN

Festaren arima,  
zu faltatzea lastima.  
Dantzarien akuilua,  
hori da hori estilua.  
Istorio kontalaria,  
ezinbestez koplaria.  
Zorion banatzailea,  
batez ere zirikatzailea.  
Alaitasunaren giltzarria,  
ez izatea amorragarria. ■■■







# Deiturak eta egiturak

**A**tzera begira jarrita, ez dira urte gehiegi igaro Ibarretxe jaunak "vascos y vascas" esaldia errepikatzen zuen garaitik. Egia esateko, orduan ez nion zentzu gehiegirik hartzen. Alabaina, berandu bada ere, ikasi nuen aipatzen ez dena ez dela existitzen. Alegia, "vascos" esaldiak, bere horretan, gizonezkoak soilik hartzen dituela kontuan, emakumeak suposizioaren itzal ilunean utziz. Egia zor, euskarak tresna hobeak ditu genero berdintasuna bermatzeko: "Euskaldunak" terminoak gizon, emakume eta binarioak ez diren generoak ere bere baitan hartzen ditu, eta alde horretatik, zortea dugula esan dezakegu.

Alabaina, hizkuntzaren egiturak gizonon ikuspegitik eraiki izan dira. Gizaki, gizarte, gizalege eta abar denek, soilik

gizona dute kontuan. Horregatik, berdintasuna adierazten duen termino baten bila hasitakoan, "pertsona" deitura oso egokia iruditu zitzaidan, pertsonaren baitan gure espezieko izaki oro sartzen delako. Alta, termino honek ere baditu bere gorabeherak. Marcel Mauss antropologoak dioenez, "pertsona" terminoak maskarapean aritzen den pertsonaia du oinarri. Gerora, pertsona gisa bilakatuz eta sozietate ezberdinetan konnotazio desberdinez hornituz. Baina, oinarrian, "pertsona" terminoak maskarak ostendutako izakia adierazten du, beraz, agian ez da izendapen egokiena. Horrek guztiak erakusten digu hizkuntzen egiturak korapilatsuegiak direla duintasuna eta berdintasuna adierazteko.

Aldiz, gizarte egituretan erreparatzen badugu, eta egungo neoliberalismo garaia kontuan hartuz, sortu diren erlazio asimetrikoek termino zehatz batengana bideratzen gaitu: "Norbanako". Norbanako bakoitzak geure interesak ditugu, eta edozein zirkunstantziaz baliatzen gara interes horiek defendatzeko, besteak beste, tokian tokiko eta garaian garaiko egoerek bultzatutakoa egitea. Esan daiteke talde lez berdintasuna islatzen dugula, baina norbanako gisa interes ezberdinek bideratutako diferentzia nabarmenak ditugu. Barkatu atrebentzia, baina gure izaera zebrenarekin alderatzea otu zait: begiratu batera berdintasuna erakutsi arren, bakoitzaren marretan erreparatuz gero, denak ezberdinak dira.

## HAUXE BAI JENEROAI!



Gizartearen egiturak ere norbanakoentzat marrak edo legeak jartzen dizkigu. Alabaina, bazterketa edo diskriminazioa medio, bakoitzari era ezberdinean eragiten digute. Horregatik, lehiaren oihanean aurkitzen gara, non botere erlazioa eta norgehiagoka etengabea diren. Eta hor ere badugu zebren antzik. Ezen, aforismo afrikar batek dioenez: "Zebra batek lehoiarengandik ihes egiteko, ez du zertan lehoa baino bizkorragoa izan, baizik eta beste zebrek baino azkarragoa". Gu ere kontsumismoaren belardian aurkitzen gara, berdinak garenaren itxuran, baina aldamenekoari so. Izan ere, aspaldi askatu zituzten kapitalismo bortitzaren lehoiak, eta guk, atzera begiratu eta pizti horiei aurre egin ordez, iheserako

hautua egiten dugu. Ondokoaren arnasestua norberarena baino larriagoa denaren itxaropenarekin, itzulerarik gabeko lasterketan murgilduak gabiltza.

Halaber, pizti horien atzapar eta hortzeriatik igarotzen dena periferiako estoldetara bideratzen da, non frakaso eta txirotasunaren lekuko bilakatzen den. Alabaina, zenbat eta gehiago elikatu, katu erraldoi horien gosea are eta handiagoa da, ez da asetzen. Eta, bien bitartean, norbanakoen taldea gero eta urriagoa izateaz gain, partaide azkarrago eta zuhurragoz osatutako dago. Eta aldamenekoaren arnasotsa harraparien aho-lurrinarekin nahasten den bitartean, gizartearen egitura sostengatzen dugun norbanakoen tropelak aurrera dihardu. ■

## ERREMATEA



RINA CABEZA

### Hausnarketak

**A**zkenaldian begi bistakoa da trans pertsonak hedabide sozialetan, telesailetan nahiz filmetan eta abarretan agertzen hasi gara. Baina, orduan, nola izan daiteke gure egunerokoaren parte zapal dutako subjektua izatea? Horrekin zera esan nahi dut, gure errealitatea normalizatzeko tendentziak agertzen diren arren, egungo gizartearen dugun sistemak gure zapalkuntza betikitzen duela. Trans langileriarentzat eguneroko ogi dira hormonekin arazoak izatea, izan nahikoak ez daudelako edo uneoro aldatzen dituztelako. Baita itxaron zerrendan urteak igarotzea ere; zer esanik ez trans proletalgoari horretarako aukera ukatzen zaionean.

Orain dela pare bat aste ezagun batek galdetu zidan trans lege baten alde egongo al nitzatekeen ala ez. Galdera horri erantzun beharrean beste galdera batzuk proposatu nizkion nik: edozein momentuan alda dezaketen lege bat noraino da beharrezkoa? Zein ezaugarri behar lituzke lege horrek? Norentzat behar luke legediak, soilik gaitasun ekonomiko handia duten trans pertsonentzat ala trans langileriarentzat bere osotasunean?

Garai ilun batek ezaugarritzen du gure egunerokoa, eta iluntasun horri aurre egiteko antolatzea da bide bakarra. ■







# Sektorea eta ekoizleak, lehen lerrora

Azoka biziberritzeko asmoz lantalde bat eratu dute hainbat eragilek elkarlanean, eta ekintza planean, besteak beste, Berdura Plazako eraikina berritzea aurreikusi dute. Udalak 2022ko aurrekontuetan ezarri du horretarako diru partida, eta itxaropentsu daude Urkome eta azokako ekoizleak, azoka biziberritzeko lehen urratsa izango dela uste baitute. Lehen sektoreari bultzada ematea ere premiazkoztat jo dute alde guztiek. Testua: **Anartz Izagirre**. Argazkiak: **Anartz Izagirre, Ane Olaizola eta utzitakoak**.



**A**zkoitiko leku estrategikoenetariko batean dago kokatuta Berdura Plaza. Herriko plaza du aurrez aurre, Urola ibaia azpian, eta Kale Nagusia bertatik bertara. Bertan egon ohi dira inguruko ekoizleak beraiek ekoiztako produktuak saltzen, horretarako egokitutako gun bat baitago. Azken urteetan, ordea, azpiegituraren oztopoak behin baino gehiagotan azaldu dituzte ekoizleak nahiz bertan egoten diren saltzaileak, eta Azkoitiko Udalak nahiz beste hainbat erakundek bultzatuta, Azkoitiko Azokaren Plan Integrala aurkeztu zuten joan zen uztailen, azoka biziberritzeko ekintza plan bat osatzeko eta hori martxan jartzeko. Lantalde bat ere martxan jarri dute, besteak beste, planean zehazturiko ildoak eta jarraibideak gauzatzeko. Sektorearen azken hamarkadetako bilakaeraren isla da ekoizleen egoera, eta kontziente dira egoera aldatzea ez dela ahuntzaren gauerdiko eztabaila. Egoerak, ordea, ez ditu tartean dauden norbanakoak zein eragileak kikildu, eta azoka biziberritzeko pauso sendoak emateari ekin diote.

Urkome Urola Kostako Landa Garapeneko Elkarteak da bilera horietan parte hartzen ari den erakundeetako bat, eta lehen bi bileretan "sentsazio ona" izan dutela azaldu dute Yurre Peñagarikano kudeatzaileak eta Olatz Lacomba teknikariak. Hala dio Peñagarikanok: "Lehen bileran gauza mordoa atera ziren, eta jendeak parte hartu zuen. Garrantzitsua da hori, denen artean gauzatu behar delako ekintza plana". Eskualdeko elkarteak izaki, inguruko beste hainbat herritar azokaren berri ere badute Urkomekoek, eta guztietan behar antzekoak identifikatu dituztela azaldu dute; esaterako, azpiegitura egoki baten beharra: "Askotan errepikatzen den kontua da azpiegiturarena, eta Gipuzkoan herri askok dute egoera bera. Baina nik uste dut ez dela instalazioak hobetzea bakarrik, beste zerbitzu batzuk ere eskaini egin behar dira produktuak saldu ahal izateko", azaldu du kudeatzaileak. Bat dator Lacomba: "Jendeak joan ezin duen ordutegia badu azokak, jende horri lagundu egin behar zaio produktua berarengana eramaten".

Komunikazioaren garrantzia ezinbestekotzat jo dute Peñagarikanok eta Lacombak azoka biziberritzea lortzeko. "Iruditzen zaigu jende askok ez dakiela ekoizleak noiz joaten diren Azoka Plazara produktuak saltzera, eta ezagupen hori faltan sumatzen dugu. Bertako herritar askok jakingo dute, baina hori ez da nahikoa. Komunikazio aldetik lan handia dago egiteko", azaldu du Peñagarikanok. Ekoizleen erreleboa ere erronka handia dela onartu du: "Ekoizle gehienak adinekoak dira, eta Gipuzkoa osoan gertatzen da hori, nahiz eta azokatik azokara gauzak asko aldatzen diren".

### **Herritarren konpromisoa**

Urkomeko kideek nabarmendu dutenez, azkoitiar guztien esku dago azokaren biziberritzea. Alde horretatik, Ikertalde egindako ikerketaren emaitzak aipatu ditu Peñagarikanok: "Inkestak egin zirenean, Azkoitia izan zen Gipuzkoa osoan *online* inkesta gehien jaso zituen herria; ikaragarria izan zen, eta harrিতuta gelditu ziren emaitzarekin. Diagnostikoa egin zenean azokara joateko joera bat nabarmendu zen, baina egia da pandemia garaia ere bazela". Ildo horretatik, Lacomba dio pandemiaren ostean geroz eta gehiago baloratzen duela jendeak bertako produktua: "Herrietatik atera ezin

Berdura Plazaren larunbateko azokaren irudia.



Yurre Peñagarikano Urkomeko kudeatzailea eta Olatz Lacomba Urkomeko teknikaria, Urkomeren egoitzan.

ginenez, azokara joateko ohitura areagotu egin zen, eta horrek lagundu egin zien ekoizleei. Badago bertakoa kontsumitu nahi duen herritarren korrante bat; jendeak gero eta gehiago baloratzen du produktuak hemen landatutakoak izatea, nork ekoizitakoak diren jakitea... Korrante horri heldu behar diogu".

Bestalde, herriko ekoizleekin harreman estua dute Urkomekoek, eta horiek azokaren biziberritzean aktiboki parte hartzeko prest daude; halere, horiei laguntza eskaini behar zaiela argi du Peñagarikanok: "Lehen baserrietan jende mordo egoten zen, eta horietako bat joaten zen azokara saltzera. Orain, berriz, sarritan pertsona bakarra arduratzen da guztiaz". Beste erronka bat ere aipatu du: "Lortu behar dugu Azkoitiko ekoizleek herrian bertan saltzea, hor haustura bat baitago".

Digitalizazioak lehen sektorearen garapenean garrantzirik ba al duen galdetuta, baietz dio Peñagarikanok: "Dudarik gabe. Digitalizazioaz ari garenean askotan ordenagailuak eta sistemak etortzen zaizkigu burura, baina *smartphone* bat erabiltzen jakiteaz ere ari gara hizketan. Pandemia garaian, esaterako, salmenta pila bat egin zituzten ekoizleek Whatsapp bidez, eta gaur egun ere mantentzen da joera hori". Urkomeko kideak kontziente dira ekoizle askok "behartuta" egin behar izaten dutela digitalizatorako jautzia, baina erraztasunak eskaintzen dituela nabarmendu dute: "Beizaman eta Errezilen, adibidez, banda zabala dute dagoeneko, eta ikusi dute horrek zer-nolako onurak ekarri dizkien. Hala eta guztiz, formakuntzaren beharra ikusten dugu digitalizatorako jautzia egiteko, eta hor paper garrantzitsua dugu guk".

Funtsean, Urkomeko kideek azpimarratu dute azoken biziberritzerako erakundeek ez ezik, norbanakoek ere badutela zeresana. Hala dio Urkomeko kudeatzaileak: "Norberak, indibidualki, ardura dauka. Zergatik? Bakoitzak aukera dezakeelako produktuak non eta nola erosi. Supermerkatuetan ikurriña pila bat jarriko dizkizute, baina sarritan ez dakizu nori ari zaren erosten. Gainera, ekoizleari zuzenean erosten badiozu, lan horretatik bizi ahal izateko prezio duin bat ordaintzen ari zara. Ez nuke esango erantzukizuna



erakundeena bakarrik denik". Pegañarikano eta Lacomba, biak ala biak, bat datoz gauza batekin: azkoitiarrek erabakiko dutela Azkoitiko azokak aurrera egingo duen ala ez. "Apustua udalak eta ekoizleek egingo dute, baina hori mantentzea eta horrekin aurrera egitea herritarren esku dago".

### **Salmenta zuzena helburu**

Azkoitiko azokan egoten diren bi ekoizle dira Zabaleta Berri baserriko Edurne Osa eta Pikuñeta baserriko Luis Olano, eta biak ala biak ogia egiten dute. Olanok eta familiak duela 35 urte lursail zahar bat erosi zuten, eta ogia ez ezik, gazta ere egiten dute. Azkoitiko Berdura Plazakoa da egon ohi diren postu bakarra, larunbatetan, 08:00etatik 11:00etara. Osak eta familiak, berriz, Zabaleta Berri baserria egin zuten, eta duela 30 urte inguru hasi ziren ogia egiten. Aitarengatik ikasi zuen ofizioa, eta senarraren gurasoek Zabaleta Goikoa baserrian labe zahar bat zuten, bertan hasi ziren lanean; orain, berriz, beren baserrian dute labea. Ostiral arratsaldeetan 17:30etik 20:00etara egoten dira, eta larunbat goizetan, 09:00etatik 12:00etara. Biak izan ziren azoka biziberritzeko lantaldearen lehen bileran. Osaren arabera, "aurkezpen moduko bat" izan zen lehen bilera, eta bigarrenagoan, udal ordezkariak Berdura Plaza biziberritzeko duela urte batzuk zegoen proiektu zahar bat eraman zuten bilerara. Azokan saltzen urteak daramatzatenez, ondo baino hobeto dute haren berri, eta biak bat datoz azpiegitura egoki baten beharra aipatzerakoan. Hala dio Olanok: "Azken hamabost urteetan oso lagata egon da eraikina, eta justuko konponketak egin dira. Guk lan egiteko gutxieneko baldintzak behar ditugula eskatzen dugu, eta gaur egun ez dago baldintza egokirik".

Horrez gain, "hausnarketa falta" dagoela ere aipatu du: "Ez da hausnarketarik egon salmenta zuzenak herrian eragin dezakeenaren inguruan, ezta, besteak beste, elikadura burujabetzaren inguruan ere. Ez zaio kontra egin kontsumo eredu bati". Osak, bestalde, ekoizleen errelebo faltan egin du azpimarra: "Azken 30 urteetan joera bera izan da. Lehen ere ekoizleen profila jende heldua eta edadetua zen, orain

Ekoizleak eta bezeroak, Azkoitiko azokan.

**"EKOIZLE GEHIENAK  
ADINEKOAK DIRA  
AZKOITIKO AZOKAN,  
ETA GIPUZKOA OSOAN  
GERTATZEN DA HORI"**

**"LORTU BEHAR DUGU  
AZKOITIKO EKOIZLEEK  
HERRIAN BERTAN  
SALTZEA, HOR  
HAUSTURA BAITAGO"**



Edurne Osa eta Luis Olano ekoizleak, Berdura Plazan.

bezala. Dena den, ikusten da gazte batzuek beste pentsaera bat dutela".

### **Erakundeei laguntza eske**

Azokak biziberritzearen inguruan "denontzat zeregina" dagoela azaldu du Olanok, eta salmenta zuzenari garrantzia emateko laguntza eskatu du: "Ikusten duzu industria asko bultzatu dela dirulaguntzen bitartez, handik eta hemendik. Lehen sektorearekin, ordea, ez da halakorik gertatu. Baserri mundua berreskuratu nahi bada, laguntza eskaini behar da, eta azokari laguntza emateak salmenta zuzenari bultzada ematea esan nahi du. Salmenta zuzenik gabe ez dago etekinik, begira zer gertatu den esne eta okela ekoizleekin". Bat dator Osa ere: "Zure produktuak ekoizle bati saltzen badizkiozu hark ezartzen dizu prezioa, eta galtzen ateratzen zara. Hori dela eta, salmenta zuzena bultzatu beharko litzateke".

Azkoitiarrek herrian kontsumitzeko konpromisorik ba ote duten galdetuta, pandemian salmentetan igoera egon zela diote, baina igoera hori ez dela konfinamendua amaitu ostean mantendu. "Oso gauza puntuala izan zen. Jendeak ez zuen kanpora joaterik, eta etxean egiten zituen otorduak. Behin herrien arteko mugak ireki zirenean lehengora itzuli zen, eta sektorearen egoera orokorrarekin lotuta dago joera hori", azaldu du Olanok. Ildo horretatik, Osari "zalantza" eragiten dio ikerketak: "Inkestak azoka inguruan egin ziren. Nik neure zalantza propioak ditut inkesta Lidleko atean egingo balitz jendeak zer erantzungo lukeen".

Azokak aurrera egin dezan, ezinbestekotzat jo dute bi ekoizleek azpiegitura berritzea. Hala eta guztiz, Osak komunikazioa hobetzea ere garrantzitsua ikusten du: "Norbere bezeroek badakite noiz egoten garen, baina egia da produktu konkretu bat erosiko luketen bezero potentzialek postuetan noiz egoten garen jakitea garrantzitsua dela". Olanok, bere aldetik, ikuspuntu aldaketa eskatu du: "Kontzientzia sortzea eskatzen dut. Eta iruditzen zait lehen sektoreak beste kontsiderazio bat izan beharko lukeela erakundeen partetik. Denok batera egin behar dugu lan".





Eragile gehienek azpiegitura berritzea jarri dute Azkoitiko azoka biziberritzeko jo puntuan, eta Azkoitiko Udalak 2022ko udal aurrekontuetan 220.000 euro bideratuko ditu Berdura Plazako eraikina berritzera. Hala dio Ana Azkoitia Merkataritza zinegotziak: "Plazatik Azoka Plazara begira jarrita, eskuinean gelditzen den zati hori ikusten dugu okerren. Teilatua bere garaian berritu gabe gelditu zen, eta itukin dezente daude. Hori berritzea izango da gure lehentasuna, eta horrekin batera lurra aldatzea, margotzea... Eraikinaren irudia aldatzea da nahi duguna".

Udaleko ordezkariek ere azoka biziberritzeko lantaldean sartuta daude, eta han aipatu zuten garai bateko proiektu bat aitatu du Azkoitiak: "2008an egindako proiektu bat topatu genuen, eta horren zati batzuk egin ziren 2009an; beste batzuk, ordea, egin gabe daude. Egin gabe gelditu ziren zati horiei ekingo diogu, gaur egungo egoerara eguneratuta". Azkoitiak nabarmendu du azoka biziberritzeko lantaldean atera den ardura nagusia eraikina berritzearena dela, eta udalarentzat garrantzi handia duen proiektua dela: "Aurrekontuetan partidarik inportanteena bideratu dugu proiektu horretara, eta herritarrei erakutsi nahi diegu altxor bat dugula Azkoitian: herriaren erdi-erdian dagoen eraikin sinbolikoa da, eta gauza asko daude barnean; besteak beste, azoka. Herriko ekoizleak dira, gainera, bertan egoten direnak, eta gure esku dago horiek zaintzea, bertako produktuak dituztelako". Ildo beretik, pandemian izandako igoerari eutsi behar zaiola nabarmendu du: "Garbi dagoena da pandemiak bertako ekoizle batzuen eragin positiboa izan duela, eta horri eutsi egin behar zaio. Batzuek oraindik ere eskaerak Whatsapp bidez jasotzen dituzte, adibidez".

Azoka biziberritzearena "elkarlanean" egin beharreko zerbait dela azaldu du Merkataritza zinegotziak, eta horretarako sortutako lantaldean konpromisoa igartzen duela: "Udaleko bi zinegotzi gaude talde horretan, ni eta Ingurumen zinegotzia, bi arloak ukitzen baititu gai horrek. Poliki-poliki joango gara ikusten zer behar dauden. Lanerako gogoia badago behintzat". ■■■

Ana Azkoitia, udaleko Merkataritza zinegotzia.

**"EZ DA HAUSNARTU  
SALMENTA ZUZENAK  
HERRIAN ERAGIN  
DEZAKEENAREN  
INGURUAN"**

**AZOKA BIZIBERRITZEA  
"ELKARLANEAN" EGIN  
BEHARREKO ZERBAIT  
DELA AZALDU DU  
ANA AZKOITIAK**

EUSKAL ONDARE INDUSTRIALA,  
ERAKUSKETAK, KULTUR EKITALDIAK,  
BISITA GIDATUAK...  
BIZITZAZ BETERIKO MUSEOA.  
**Parte hartu nahi duzu?**



## Nondik gatozen ezagutu, nora goazen jakin ahal izateko

Ereumentarien garaitik XIX. mendera arteko industriaren bilakaera ezagutzeko museo aparta da Elgoibarkoa. Aire bidezko uhal eta poleen bitartez osatutako transmisio sistema erabiltzen zuen mekanizazio taller batetako giroa zintzoki erreproduzitzen du. Museo bizia da, makina guztiak martxan ikus daitezke. Estatuan bakarra.

Ez galdu esperientzia ikusgari hau bizitzeko aukera!

### Bisitak



Bisita libre, gidatua, audiodigidekin,  
taldeentzat, fastebisitat egokitua,  
erpresentzat, familientzat...





### Antzinako ogibideak



Galtzar dauden antzinako ogibideen zuzeneko erakustaldiak.

### Kultur ekitaldiak



Euskal Herriko arte diziplina ezberdinak: kontzertuak, hitzaldiak, dantza ikuskizunak...

### Zientzia eta teknologia tailerrak



10-14 urte bitarteko gazteei zuzendutako Biziabe tailerrak, erronka enpleekin.




### Espazioen alokairua

Museoan espazioa erabilerari antzetzeko ahalazteko aukera dago: liburuak, ekitaldiak, aukerapenak, ikusentzuzkoak, telebista saiak eta abar. Leku partekoa da, nortasun propioa duena!

T. 943 74 84 56

Makina Erreminta Museoa  
Elgoibar, Gipuzkoa  
[www.museoa.eus](http://www.museoa.eus)  
[museoa@museoa.eus](mailto:museoa@museoa.eus)



# "Binaka lortutako txapela mugarrria izan da nire ibilbidean"

**IBAN LARRAÑAGA** ERREMONTISTA

Iban Larrañaga (Azkoitia, 1992) erremontistak duela zortzi urte egin zuen onenen artean debuta, Oriamendi enpresarekin. 2019an Javier Urrizarekin lortu zuen moduan, binakako txapela berriz janztea du amets. Erremontearen lehenaz, orainaz eta geroaz aritu da hizketan.

Testua: **Andoni Elduaiei Soraluze**. Argazkiak: **Alex Berasategi eta Oriamendi**.

## **Oriamendi enpresan aritzen zara erremontean. Noiz hasi zinen?**

Erremonteko partidak ikustera joaten hasi nintzen, eta gustatu egin zitzaidan kirola. Gertuko baten laguntzari esker, proba egiteko aukera izan nuen. Erremontean ibiltzen ziren ezagun batzuek gomendioak ematen zizkidaten, baina lehen urratsak nire kasa egin nituen, inguruetakoa pilotalekuan. Oriamendi enpresaren Azpeitiko eskolan egin nituen lehen urratsak, Peio Aizpuru entrenatzailearen laguntzarekin. 2010. urtearen amaieran, ordea, ordura arte Azpeitian entrenatzen zuten erremontista gehienak entrenatzera Galarreta frontoira (Hernani, Gipuzkoa) joaten hasi ziren. Azpeitian erremontista gutxi gelditu ginen, eta neu ere Galarretara joaten hasi nintzen segituan. Igor Sarasuak gidatuta, bi urte eta erdi igaro nituen Galarretan, astean hiru entrenamendu eginez.

## **Nola moldatu zinen hasieran?**

Hasiera gogorra izan zen, ez baintuen hiru pilotakada bata bestearen atzetik jotzen. Neurria hartutakoan, ordea, esker oneko kirola bihurtzen da erremontea. Eskuz edo palaz hasi berria den norbaitek ez du lortzen lehen hilabeteen pilota

errebotea bidaltzerik; erremontean, ordea, bai. Inor banintzela pentsatzera iritsi nintzen orduan. Moralak gora egin zidan, baina laukotean jokatzen hasitakoan, berriz ere neure tokian jarri ninduen erremontea. Kirol guztietan bezala, ordu asko sartu behar dira erremontean ere.

## **Eman zizuten aukera aprobetxatzen jakin zenuen.**

Mailaren arabera, hainbat taldetan banatzen zituen pilotariak Galarretako entrenatzaileak. Afizionatueta aritzeko maila zutenak elkarrekin aritzen ziren, eta besteok aparteko multzo batean ibiltzen ginen. 2012ko sanferminetan, ordea, bost pilotari Iruñera eramane gintuzten proba egitera. Beste lau erremontistek nik baino maila hobea zuten. Hala ere, uste baino hobeto atera zitzaidan proba, baina besteek esperientzia gehiago zutelako, haiei eman zieten debuta egiteko aukera. Nire debuta hurrengo urtean iritsiko zela esan zidaten, eta halaxe izan zen; 2013ko maiatzaren 25ean jokatu nuen lehendabizikoz lehen mailan.

## **Pixkanaka maila hobetzen joan zara, eta onenen artean lekua egitera iritsi zara orain.**

Oriamendi enpresa martxan jarri zenetik 2020ra arte, ostegunero eta larunbatero izaten ziren jaialdiak Galarretan, eta egun bakoitzean lau





partida jokatzeko ziren. Sekulako partida pila jokatzeko genuen orduan. Pentsa, urte batean 96 norgehiagoka jokatzera iritsi nintzen. Pilotari guztiok jokatzeko genituen 70 partida baino gehiago, baina urte hartan adina ez dut jokatu inoiz.

#### **Erremontea osasuntsu zegoen, beraz.**

2000tik 2010. urtera artean egongo zen erremontea mailarik gorenean. Juan Antonio Ercilla Galarreta pilotalekuko orduko buruak, ordea, frontoia ixtea erabaki zuen 2009. urtean, errentagarria ez zelako. Gero, Oriamendi enpresa jarri zuten martxan pilotari ohi batzuek, eta 2020. urtera arte Galarreta alokairuan hartu zioten Ercillari. Kontratua amaitu zenean, berriz, Galarreta erostea erabaki zuten Oriamendiko egungo jabeek; frontoia beraiena da orain. Erremontea zaharkituta gelditzen ari zelakoan, zenbait lan egitea erabaki zuten haiek. Orain, esaterako, txapelketak daudenean soilik irekitzen dute Galarreta, jendea pilotalekura erakartzeko bidea hori dela ikusten baitute.

#### **Zein da Galarretako erremontearen egungo egoera?**

Oriamendi enpresari ondo joan zitzaion lehen urteetan, baina pixkanaka, behera egiten hasi zen

erremontea; batetik, jende gutxiago hasi zen joaten frontoira, eta bestetik, apustuak asko jaitsi ziren. Gaur egun, duela 15 urte jokatzeko zenaren erdia baino gutxiago jokatzeko da apustuetan. Gizartea aldatzen ari da, eta apustuen mundua amaitzen. Orain, gazteak erremontera animatu nahian ari da enpresa. Ahalegin berezia ari dira egiten sare sozialak, babesleen eta telebistaren bitartez.

#### **Erremontetik kanpo ere lan egiten duzu. Erraza al da lana eta kirola uztartzea?**

Ez dut inongo arazorik. Debuta egin nuenerako hasita nengoen lanean, eta ez nuen arazorik izaten entrenatzeko, lanetik irtendakoan egiten bainituen lan saioak. Ostegunetan, ordea, 16:00etan hasten ziren jaialdiak Galarretan, eta debutatu berria nintzen garaian, lehen partida jokatu behar izaten nuen. Lantegian, baina, ez didate inoiz eragozpenik jarri. Hala eta guztiz, erremontista guztien lan ordutegia ez da berbera, eta erreleboan lan egiten dutenek, esaterako, arazo gehiago izaten dituzte. Orain, astearteetan eta ostegunetan egiten ditugu entrenamenduak. Kike Elizalde enpresako intendenteak zuzentzen ditu saioak, eta hura kantxan dagoenean

txorakerietarako gogo gutxi egoten da. Ehuneko ehunean entrenatu behar izaten dugu.

### **Erremontean hasi aurretik esku pilotan ibili zinen. Kirol oso desberdina da, ezta?**

18 urte nituenean utzi nion pilotari, aurrera egiteko aukera gutxi ikusten nion-eta nire buruari. Halaber, eskuetatik ere asko sufritzen nuen. Pilotan ibili izanak, ordea, asko lagundu dit erremontean. Oso kirol desberdinak dira, bai, baina kantxa barruko jarduera denez, berbera da sena. Segituan nabaritzen zaio erremontistari aurrez pilotan, palan edo futboleko ibilia den. Esku pilotan erabiltzen ez den postura bat sarritan erabili behar izaten dugu erremontean: goiko postura. Pilotako postura da nirea, behetik gorakoa, eta asko kostatu zait goiko postura hori hartzea. Pilotan ibili izan ez banintz, ordea, beharbada ez nintzatekeen erremontean ezer egitera iritsiko. Esku pilotan ikasitako gauza asko baliagarri izan zaizkit erremontean.

### **Nola definituko zenuke zure burua erremontean?**

Eguna dudanean, sake eta errebote ona ditudala esango nuke. Piloteorako, berriz, beheko postura dut arma nagusia. Erremontean, atzelari batek sake ona izan behar du. Oso garrantzitsua da sakea, askotan egiten baita min modu horretan. Sakearekin tantoa zuzenean egiten ez bada ere, sake ona aterata tantoa menderatzera iristeko aukera asko daude. Atzelariak, bestalde, asko jo behar izaten du errebotera, eta nire burua gogor hartu izan dut horretan. Piloteoan ondo moldatzea ere ezinbestekoa da. Maila gorenean pilota gutxi galdu behar izaten da, eta hori urteen poderioz lortzen da.

### **Erremonte luzerako pilotaleku bakarra duzue, Galarreta. Muga bat al da hori jokalariontzat?**

Erremontearen katedrala da Galarreta. Badira erremonte luzea jokatzeko pilotaleku gehiago ere, hala nola Uharteko (Nafarroa) Euskal Jai Berri eta Azpeitiko Izarraitz. Baina desberdina da. Galarretak xarma eta esentzia berezia ditu, han bestelako hotsa ateratzen du pilotak eta frontoia bera ere noblea da. Erremonteko benetako pilota partida bat ikusi nahi duenari Galarretara joateko esango nioke. Egia da, era berean, Galarretan bakarrik jokatzeko gauza asko mugatzen dizkigula. Handik kanpo ere jokutzen dira partidak, baina horiek jendea Galarretara bideratzeko osagarriak direla iruditzen zait. Pilotaleku motzeko erremontea ere behar-beharrezkoa da, Galarretara oraindik iritsi ez denari erremontea zer den erakusteko, baina

erremontea ez litzateke erremontea izango Galarreta gabe.

### **Erremontea indartzeko ahaleginetan ari dira. Zein urrats ari dira egiten?**

Jendea gutxitzen ari zen Galarretan, eta orain, publiko gaztea erakartzea da asmoa. Zer egin behar da publikoa frontoira erakartzeko? Galdera ona da, baina erantzun zaila du. Gaur egun, kirolak ezin du funtzionatu telebista gabe, beharrezkoa da etxe guztietara zabaltzeko. Horretarako, ordea, produktu interesgarria sortu behar da. ETB lan handia ari da egiten erremontean: besteak beste, buru gaineko GoPro zein perspektiba desberdinetako kamerak erabiltzen dituzte, kantxarako irteeretan kea eta argiak jartzen dituzte, pilotarion audioak sartzen dituzte... Frontoian ere saiatzen dira ikusleei eskaintzak egiten. Sare sozialetan, publizitate eta zozketa asko egiten dituzte, eta pilotalekurako sarrera ere merkeagoa da 30 urtetik beherakoentzat. Tartean-tartean ikusten dira gazteak Galarretan; sanferminetako txapelketako finala jokatu genuenean, esaterako, 800 bat lagun elkartu ziren frontoian, eta asteazken arratsaldea zen. Oso zaila da jendea pilotalekura erakartzea, baina ahalegintzen ari dira.

### **Erremontean bide desberdina hartu duten bi enpresa daude. Zer iritzi duzu horretaz?**

2019aren amaieran, enpresa berri bat sortzeko ideiarekin hasi ziren Nafarroako bi enpresari, eta pilotari guztioi proiektua ere aurkeztu ziguten. Oriamendi enpresa utzita, Nafarroako Euskal Jai Berri Erremonte Fundazioaren eskaintza onartzea erabaki zuten pilotari batzuek. Hamar bat pilotarik utziko zuten Galarretako enpresa, eta ondorioz, pilotari gutxiago gelditu ginen gure taldean. Nafarroako enpresak herri txikietan eta frontoi motzetan antolatzen ditu txapelketak, eta Oriamendi enpresak, berriz, Galarretan. Pena handia da bai Euskal Jai Berri Erremonte Fundazioko eta bai Oriamendi enpresako pilotariontzat elkarren artean ez lehiatzea. Hara joan ziren pilotari asko lagunak ditut, gainera.

### **Zer egingo zenuke erremontek egun bizi duen egoera hobetzeko?**

Erremonteko bi enpresak ados jartzea gustatuko litzaidake. Tristea da 30 pilotari dituen kirol batean batzuk alde batetik eta besteak bestetik ibiltzea; galera handia da erremontearantz. Elkartuko bagina, erremontea kirol indartsuagoa bihurtuko litzatekeela uste dut. Era berean, lehiakortasun handiagoa izango genuke, eta ikuskizunerako ere



Iban Larrañaga.

**"ESKU PILOTAN IKASITAKO GAUZA ASKO BALIAGARRI IZAN ZAIZKIT ERREMONTAN"**

**"BENETAKO ERREMONTA IKUSI NAHI DUENARI GALARRETARA JOATEKO ESANGO NIOKE"**

**"ETORKIZUNEAN ERREMONTAN ERE ENPRESEN ARTEKO TXAPELKETAK JOKATUKO DIREN ITXAROPENA DUT"**

maila hobia sortuko litzateke. Bestalde, herrietara aterako nuke erremontea, eta frontoi motzetan eta festetan sartuko nuke, jendea zer den erakusteko; izan ere, jendeak ez du inoiz Galarretara joateko bidea egingo gure kirola zer den erakutsi gabe. Gainera, ahalik eta txapelketa gehien jokatzearen aldekoa naiz, baita posible den guztietan horiek telebista bidez ematearen aldekoa ere. Horrez gain, garrantzitsua da eskola berriak abian jartzea. Erremontean interesatuta dauden herrietako umeei zestoa eta pilota eman behar zaizkie, soilik modu horretan bermatuko baita etorkizuna.

**Zer etorkizun aurreikusten diozu erremonteari?**

Eraberritzen ari da erremontea, telebista sartu delako eta enpresaren funtzionamendua bestelakoa delako. Lehen ez zen egin erremontea berritzeko saiakerarik, eta uste dut modu hartan jarraituz gero, egunak zenbatuta izango zituzkeela erremontea. Orain, enpresak eta ETBk duten elkarlanaren ondorioz, gauza berriak ari dira probatzen: partida egunak eta orduak aldatzen dituzte eta telebistan ematen dituzte. Azken urteetan jende askok galdetu izan dit erremonteari buruz; zerbait aldatzen ari den seinalea da. Gainera, badira maila oso ona erakusten ari diren erremontista gazteak ere. Esku pilotan jokatzeko diren moduan, etorkizunean erremontean ere enpresen arteko txapelketak jokatuiko diren itxaropena dut. Urte askoan kantzax aritzeko moduko pilotariak daude gaur egun. Asko esan nahi du horrek guztiak, eta ea pixkanaka gora egiten laguntzen diogun erremonteari.

**Zure urterik onenak iristeko al daude?**

Baietz espero dut. 2019an irabazi nuen Binakako Txapelketa Javier Urrizarekin; hura izan zen, gainera, erremonteko bi enpresa banandu aurreko azken txapelketa. Txapel hura irabazteak asko lagundu dit gerora, gora egin bainuen. Maila hobeko pilotaria bihurtu ninduen binakako txapelketa hark.

**Urrizarekin txapela jantzi zenuen txapelketa izan al da zure ibilbideko unerik onena?**

Zalantzarik gabe. Binaka lortutako txapela mugarrria izan da nire ibilbidean. Txapelak nire buruarekiko konfiantza irabazteko balio izan zidan; izan ere, ordura arte ez nuen ikusten erremontean ezer handia lortzeko gai izango nintzenik. Nire moduko pilotari baten ezaugarriak ez dira buruz burukorako, eta horregatik, binakako txapela irabaztea da nire helburua. Behin lortu nuen, eta ea egunen batean bigarrena lortzeko gai naizen. ■■■■



**KATTAGORRI ARTEA**

TALLER ARTISTIKOAK

GOZ ETX ARKATSAIDIZ: gaste eta lehiaketa

kattagorriarte@gmail.com

674335988

Zuatzola kalea, 2. Azkoitia

**ZERBER**

**BURDINDEGIA**


BEHAR DUZUNERAKO ALOH GUZTETAKO GAIAK AURKITUKO DITUZU GURE BURDINGIAN: INDUSTRIA, ELEKTROSTATUA, MARIKOLARITZA, ETXEA, ITURGINTZA, BIKOLAJEA ETA ABARREKO TRESNERIA: HALA NOLA, TORLOJUAK, ERRODAMENDUAK, SARRALAK, GILTZAK, ETA ABAR...

**ZERBERREN**

**"ZER BER ETA HURAXE"**

NAGUSIA: 38-20720 AZKOITIA - 409 35 31 25

www.ferreteriazerber.com



**JARRI HEMEN ZURE IRAGARKIA!**

# Non dago Zakelmari?




Abenduko Maxixatzen aldizkarian Zakelmari non ezkutututa zegoen asmatu behar zen: 23. orrialdean zegoen ezkutututa. Lehiaketan parte hartu duten Maxixatzeneko bazkideen artean zozketa egin ondoren, irabazlea Libe Aleson bazkidea izan da, eta Ogi Berri okindegiaren zortzi lagunentzako tarta irabazi du. Datorren hilean, Herrixen elkartearen 50 euroko txeketa zozkatuko du Maxixatzenek Zakelmari aurkitzen dutenen artean. Bidali erantzuna urtarrilaren 18a baino lehen, Kultur Etxeko postontzira edo [erredakzioa@maxixatzen.eus](mailto:erredakzioa@maxixatzen.eus) helbide elektronikora.



## ANBULATORIOAREN ONDOAN

**KAFETEGI HANDIA DUGU:** urtebetetze-ospakizunak, gosariak, meriendak, errazioak, pintxo potea asteazkenetan, txokolatea txurroekin eta terraza zabala.

**ESKAINITZA ZABALA:** ogiak, opilak, gozoak, etab.

JAUSORO AUZUNEA, 5 behea • 20720 AZKOITIA • tel. 943-08 34 54  
FACEBOOKa OGI BERRI AZKOITIA GOXO GOXO





9.ZENBAKIA-2022-URTARRILA

# GUKA



MIKEL KAZALIS ETA XABIER LIZASO

**MUSIKAK  
BIZI DITU**



**Euskararen plaza gara,**  
herriaren irudia eta  
komunitatearen ahotsa



**HEDABIDEKIN  
ERE BAI**

# PRESENTZIA HANDIAK



**IÑIGO GAITON**

Klarinete eskolak hartzen ari nintzen batean, 6 urterekin-edo, ikasgelako atea jo zuten. Musika eskolako zuzendaria zen, eta nire orduko irakasleari, Anari, enkarguren bat eman nahi zion. Instrumentua jotzeari laga nion une batez, bi helduek haien kontuez hitz egin zezaten.

Agurtu aurretik, niri zuzendu zidan begiratua zuzendariak. Xabier Lizaso zen. "Iñigo, animatuko al haiz Gabonetako oporren aurretik emango dugun kontzertuan jotzera?", galdegin zidan era adeitsuan. Aste gutxiaren bueltan, oso urduri eta triapak lehertu beharrean, jendaurreko nire lehen emaldia jo nuen Elizan, gainontzeko ikaskide eta gurasoen aurrean.

Hamahiru urte beranduago, 19rekin, eta orduan ere abenduan, beste mota bateko kontzertu batean bilatu nuen nire burua: Elizan beharrean, sanikolasetan Orioko moilan jartzen zuten txosnan; klarinetaarekin

aspertuta, eskuetan gitarra elektrikoa nuen ordurako. Arrautz Ustelak taldearekin, Anestesiaren telonero izateko aukera izan genuen. Jendetza bildu zen karpa txuriaren azpian (haien jarraitzaile sutsuak gehienak, jakina) eta, lanbro artean, nahastuta gogoratzen ditut oholtzan izandako bizipenak. Mikel Kazalisen Marshall mitikoaren aurrean jo nuen, oso urduri eta triapak lehertu beharrean orduan ere.

Azaldutako esperientzietan, biei errespetu handia zor zitzaie iruditu zitzaidan. Lizaso herritik ezagutzen nuen, eta ordurako banekien nazioartean ibilitako pianojolea zela. Elizan organoa jotzen ere ikusi izan nuen inoiz, eta umeon begietatik erreparatuta, musika eskolako zuzendaria zela jakiteak

**Musikarekiko gaztetako pasio eta grina bera mantentzen dituzte Lizasok eta Kazalisek**

ere ematen zion aparteko seriotasun puntu bat. Ez zen edonor.

Kazalisen kasuan, txosnetako kontzertuetan ikusi nuen zuzenean aurrenekoz, eta eszenatokiko animalia bat zen: bere itxura, gitarra jotzeko estilo indartsua, Anestesiaren soinu basatia... Publikoa erotu beharrean jarri zuten, eta nahasmen haren erdian bizitzeko jaioa zirudien berak. Gainera, ordurako asko miresten nuen Negu Gorriakekin egina zuena.

Bi musikariak parean eta pareko jartzeko aukera eman dit ofizioak orain. Berriketaldi ederra izan genuen elkarrekin, eta biek argi laga zuten: musikarekiko gaztetako pasio bera mantentzen dute oraindik ere. Partitura klasiko bat ikasten bi urtetik gora daramatzala aitortu zigun batek; Anestesiarekin oholtzara igotzeko amorratzen dagoela, besteak.

Umetan eta gaztetan iruditu zitzaidan bezalaxe, biek presentzia handiak izaten jarraitzen dute niretzat. ■

**Argitaratzailea:** Urolako Komunikazio Taldea

**Zuzendaria:** Onintza Lete Arrieta

**Tirada:** 4.700 ale



**Enpresa laguntzailea:**

**DOMUSA**  
T E K N I K

# MUSIKAREN HANDITASUNAK HARRAPATUTA

Xabier Lizaso eta Mikel Kazalis

**Euskal rock giroa zertxobait ezagutzen duenarentzat, Mikel Kazalisek ez du aurkezpenik behar. Besteak beste, Negu Gorriak eta Kuraia taldeetan ibilia da zarauztarra, eta egun, oholtza gainean jarraitzen du Anestesiarekin. Beste giro batean, baina musikarekiko pasio berarekin, Xabier Lizasok pianoari lotuta egin du ibilbidea. Kontzertuak emateaz gain, oriotarrak urteak egin ditu musikaren dibulgazioan eta ikerkuntzan murgilduta, Do Re Ni proiektuarekin. Aurretik ez zuten elkarren berri; elkarrizketan gurutzatu dira haien bideak.**

Testua: **Iñigo Gaiton**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Xabier Lizasok (Orio, 1965) eta Mikel Kazalisek (Zarautz, 1968) musika dute bizigai. Nota, kontzertu, melodia eta entseguen artean egiten dute eguneroko bizitza, baina esan daiteke, kontrako muturretan dauden lurralde, eremu edo atmosferetako animaliak direla. Horren froga dira bien gustuak, influentziak eta hiru hamarkadatik gora pilatu dituzten esperientziak. Modu batera edo bestera, musikarekiko sentitzen duten grina zabaltzen dihardute biek; haiekin bi hitz egitea nahikoa da musikak gorputz osoa zeharkatzen diela jabetzeko. Indar beraren eroaleak dira biak. Orioko Arraunetxan

zehaztu da zita, eta logistika kontuak tarteko, areto nagusian beharrean aulki mugikorreko ontzi horien artean egin da elkarrizketa. Benetan kurioa da biek han osatzen duten argazkia.

**Mikel eta Xabier, ibilbide luzeko musikariak zarete biok. Ba al zenuten elkarren berri hemen elkartu aurretik?**

**Xabier Lizaso:** Ez. Lehen egon gara pixka bat berriketan, eta plazer handia izan da Mikel ezagutzea.

**Mikel Kazalis:** Niretzat ere bai. Aurretik ez nuen Xabierren berririk. Hona etortzeko proposame-





na jaso ondoren, Interneten bere erreferentziei begira ibili nintzen, eta kikildu ere bai pixka bat; maila handiko musikaria jarri didazue ondoan!

**30 urtetik gorako esperientzia duzue biok musika munduan, bakoitzak bere esparruan. Rock giroan ezaguna zara, Mikel, eta Xabier, zu, berriz, musika klasikoaren mundutik zatoz. Atzera salto eginda, haurtzarora, nola hurreratu zineten musikara?**

**M.K.:** Ni, adibidez, musika entzuten hasi nintzen jotzen baino lehenago. Egia esan, etxean beti izan genuen musika giroa, aita oso zalea baitzen. Biniloen primerako bilduma du. Konpositore klasikoak eta blues-a entzuten ziren etxean. Gero, arrebak hasi ziren Beatles, John Mayall, Suzi Quatro, Supertramp eta halakoak entzuten, eta hori ere jaso nuen.

Koskortu ahala, aitak denak sartu gintuen musika eskolan, eta solfeo eta piano eskolak jaso nituen bizpahiru urtez. Egia esan, ez zen izan ilusio berezia egin zidan zerbait, aitaren nahia izan zen gehiago. Aurrerago, 16 urterekin hasi nintzen lagunekin elkartzen eta rocka jotzen.

**X.L.:** Nigan ere aitaren influentzia handia izan zen. Don Santiago Azurzarekin hasi zen musika ikasten gure aita umetan, Orioko elizan. Urte batzuk aurrerago, aitak eta Orioko beste bi lagunek lan handia egin zuten, herriko jende gehiagok ere musika ikasteko aukera izan zezan. Ofizioz erlojugilea izan arren, musikari ordu asko eman dizkio aitak betidanik.

Haurra nintzela, etxean ez genuen musika asko entzuten, baina aita partiturak idazten (abestien moldaketak egiten) eta pianoa jotzen ikusten nuen. Ni jaio aurretik, herriko otxote bat zuzendu zuen, eta Benito Lertxundi ere askotan izaten zen gure etxean. Horrez gain, amak askotan jartzen zuen irratia, eta Benitoren kantak entzuten ziren tarteka. Etxeko giro hark eragin handia izan zuen nigan.

**Noiz sentitu zenuten zuen ordu, indar eta ametsak musikara bideratzeko bulkada?**

**X.L.:** Umetan, etxeko pianoa modu autodidaktan jotzen hasi nintzen. Elizako kantuak eta Benitoren abestien melodiak ikasten nituen nire kabuz. 7 urterekin, abestiak bi eskutara jotzeko gaitasuna nuen. 15 urte-edo izango nituen,

pianoko goi mailako ikasketak egin nahi nituela erabaki nuenean, pianojolea izateko ametsarekin.

**M.K.:** The Rolling Stones, Status Quo edo AC DC deskubritutakoan sartu zitzaidan arra niri. Rockero haien estetika, gitarra soinu zikin hura... 13 urte betetzerako rockeroa nintzen ni ere. Larruzko txupak erabiltzen genituen, ile luzea, galtza estuak... 13 urtetik 16ra bitarteko tarte musika mota hori entzuten eta talde bat sortzearekin amesten pasatu genuen. Nire lagun batek gitarra jotzen zekien, eta nik pianoa. Rock talde askok pianoa ere bazutenez, nire instrumentua hori izango zela adostu genuen, baina azkenean, neure kabuz, baxua jotzen ikasi nuen.

**Modu batera edo bestera, biok duzue oinarri akademikoa. Gaur egun, oraindik ere, musika ikastera musika eskoletara jo edo ez erabakitzeak zalantza asko sortzen ditu jendearengan. Kasu askotan, gurasoek izaten dute galdera hori, seme-alabengan pentsatuz. Zer iritzi duzue?**

**M.K.:** Askotan egin dut gai horren inguruko hausnarketa. Gitarra eskola bat bera ere ez dut jaso nik, eta urte pilo daramatzat jende askoren aurrean kontzertuak ematen. Hiru akordeekin abesti txukunak egin daitezkeela ikasi nuen R.A.M.O.N.E.S. taldearekin, eta nire kasuan,

**"Etxean umetan bizitako giroak bultzatu ninduen musika munduan murgiltzera"**

**"Musikak beste ezer baino gehiago aktibatzen du gure burmuina, lan handia ematen dio"**

**"Ez dugu benetan ezagutzen musikaren potentziala, uste duguna baino handiagoa da"**

**Xabier Lizaso**



autodidakta izan naiz instrumentuarekin. Eskolak jaso izan banitu, gauza asko hobeto ikasiko nituzkeen, zalantzarik gabe, baina nire kabuz ibili izanak, gitarra jotzeko estilo propio bat garatzen eta soinu bat izaten lagundu dit.

**X.L.:** Ni, berriz, oso ondo egokitu nintzen kontserbatorioko dinamikara. Jende askok utzi egiten zituen goi mailako piano ikasketak, baina ez dakit zergatik, nik aurrera egin nuen. Pentsa, lehen urtean, 200 bat ikasle izango ginen Donostian, eta laugarrenean, 30. Auto-re klasikoen partiturak jotzen ikasi nuen, eta ikaragarri gustatu zitzaizkidan Bach eta Chopin. Ordu asko sartu behar dira haien piezak ondo jotzeko, baina egia esan, haien musika ulertzea naturala egin zait.

Galderari zuzenean erantzunez, arrazoi hau nahikoa iruditzen zait umeak musika ikastera animatzeko: erresonantzia magnetikoetan argi ikusten denez, musikak garunari beste ezerk baino lan gehiago ematen dio. Hau da, musikak onurak sortzen ditu haurren garapen integratzen. Gero, noski, badaude gozamenak eta abar.

**M.K.:** Ados nago Xabierrek dioenarekin. Modu inkontzientean bada ere, umetan solfeoa eta pianoa ikasi izana baliagarri izan zitzaizkidan gero baxua edo gitarra modu autodidaktan ikasteko. Ez ziren alferrikakoak izan urte haiek, hala da.

**X.L.:** Dena den, ume bat musika eskolara bidaltzearen helburuak ez du izan behar partitura konplexuak jotzen ikastea, edo instrumentu batekin trebezia handia hartzea. Inportantea iruditzen zait musikarekiko dugun kontzeptua aldatzea, desikastea, musika delako guk orain arte pentsatu duguna baino zerbait askoz handiagoa. Ez gara ohartzen benetan duen dimentsioaz. Sekulako tresna da edozertarako; lagun dezake terapian, lagun dezake hizkuntzak ikasten, ingeniari edo kirolari hobeak izaten. Norberaren garapenari laguntzen dio.

**Zuen ibilbideak kontuan izanik, bi kontzepturi buruz galdegin nahi dizuet: diziplinari eta gozamenari buruz. Mundu akademikora lotzen da askotan diziiplina, baina Mikel, Negu Gorriakekin edo Anestesiarekin egindakoa kontuan hartuta, lan handia egongo da atzean; ziurrenik, jende askok rockarekin**

**lotzen ez duen lan, konstantzia edo dedikazio bat.**

**M.K.:** Bai, noski. Anestesia bada adibide on bat. Musika gogorra da, eta zenbaitentzat zarrata bakarrik izango da. Lehen entzunaldian sinplea eman dezakeen arren, jotzerako garaian exijentea da oso, zehaztasun handia eskatzen duelako. Abesti batzuk oso azkarrak dira, eta astero entsegurik egiten ez badugu, akabo! Ez dugu funtzionatzen.

**X.L.:** Kirolarien modukoak gara. Futbol talde batek entrenatzen ez badu, agur... Taldekideen bat aldatuz gero ere, taldea hankaz gora jar daiteke.

**M.K.:** Gure kasuan, duela 30 urteko kide berak izaten jarraitzen dugu. Jo eta jo ibili behar dugu, sasoi edo bizitasun hori mantentzeko; adinean aurrera egin ahala, gero eta gehiago. Exijentzia ere handiagoa da. 20 urterekin, ez genion garrantzi handirik ematen hobeto edo okerrago jotzeari, baina orain bai.

Bestalde, soinu teknikari ere lan egiten dut, eta esperientziak argi erakutsi dit: talde batek soinu ona izan nahi badu, taldekideek eman behar dute %90. Alegia, ondo jotzea oso garrantzitsua da. Gero, ehuneko beste hamarra, soinu teknikariak edo baliabide teknikoek hobe

**"Kontzertuak emateagatik dirua irabaztea oparia da, baina ondo pasatzea dago oinarrian"**

**"Musika komunikaziorako tresna izugarria da, emozioak astintzen ditu"**

**"Katarsiak sortzen dira kontzertu askotan, terapia funtzioa betetzen dute emanaldiek guretzat"**

**Mikel Kazalis**







dezakete, baina lehenetsi behar da ondo jotzea, garrantzia eman behar zaio horri. Horrela esanda erraza dirudi, baina ez da beti betetzen, horrek lana eta dedikazioa eskatzen baititu.

**X.L.:** Bat nator Mikelek dioenarekin. Begira, oraintxe, bi urte eta hiru hilabete daramatzat Ravelek sortutako pieza bat ikasten: *Gaspard de la nuit*. Bere helburua zen munduko piano pieza zailenetakoa sortzea, eta oso exijentea da; sasoiko egotea eskatzen dio musikariari, puntu-puntu. Hil baino lehen ondo jotzen ikasi nahiko nuke! Kar-kar-kar...

**Hainbeste entsegu eta praktika orduren atzean, gozamenak behar du oinarria derrigorrean.**

**M.K.:** Ondo pasatzea izaten da Anestesiako taldekideekin elkartzeko motibazio nagusia. Ikaragarri gozaten dugu entseguetan egiten ditugun orduetan. Pandemiaren ondorioz kontzertu dezente geratu zitzaizkigun bertan behera, baina lokalean elkartzeko jarraitu genuen, hori delako gure pasioa eta gehien gustatzen zaiguna. Zorionez, gaur egun ordaindu egiten

digute kontzertuak emateagatik, kontratazioak ditugu, eta hori opari handia da. Hala ere, jendaurrean jotzeko aukerarik izango ez bage-nu ere, sortzen jarraituko genuke; funtsean, gozamina delako mugitzen gaituena.

**X.L.:** Sekretua hori da, ez dago besterik.

**M.K.:** Zeure buruarentzako jo behar duzu musika aurrena, asko sinetsi behar duzu jotzen duzun horretan. Bestela, kantuak ezingo dituzu ondo defendatu publikoaren aurrean, eta jende-ari ez diozu ezer transmitituko. Barrutik kanpora doan prozesua da. Askotan esaten dut ni oso berekoa naizela, musika neuretzat sortzen dudalako, beste inori gustatuko zaion edo ez pentsatu gabe.

**Xabier, askotan aipatzen duzu neurologoek esaten dutela musikak beste ezerk baino gehiago aktibatzen duela burmuina. Rock kontzertu batean sortzen den giroa horren isla garbia da: jendearen saltoak, builak, eromena...**

**M.K.:** Katarsien moduko fenomenoak sortzen dira kontzertuetan. Halako une askoren lekuko izan naiz, eta neuk ere sentitu ditut. Terapi-a moduko zerbait bihurtzen dira kontzertuak, bai publikoarentzat, bai musikariontzat. Nire barruko deabruak eta egonezinak oholtza gainean askatzen ditut ondoen, eta publikoarengan ere ikusten da gauza bera. Aste osoa lanean pasatu duen pertsona batek, kontzertu batean aukera du barruan pilotutako tentsioa askatze-ko. Ederra da.

Alde horretatik, gure ofizioa oso esker onekoa dela azpimarratu nahi nuke. Igeltsero edo arotz batek bere lana ondo egiten duenean, inor ez zaio hurreratzen "onena haiz" eta halakoak modu sutsuan esatera. Guk abestien bidez jendearen emozioak astintzen ditugu, eta bueltan txaloak, ohituak eta esker oneko hitz ugari jasotzen dugu.

**Piano emanaldietan, beste modu batera, baina izango dira halako katarsiak ere, Xabier.**

**X.L.:** Bai, zalantzarik gabe, esentzia bera da, beste modu batera gorpuztu arren. Mikelek kontatu duenaren antzeko esperientziak bizi izan ditut Donostiako Kursaaln edo Varsovia-ko (Polonia) areto batean. Izan ere, rocka izan, folka, edo musika klasikoa, musika sentimentuak eragiteko tresna aparta da. Benito Lertxundi-

rekin askotan hartzen dut kafea, eta bion musika egiteko modua eta esparrua desberdinak izan arren, musikarekiko behar eta nahi berak ditugu, funtsean, musikak bizi gaituelako biok, Mikel bezalaxe.

**Zure ibilbidean bada aldaketa nabarmen bat, Xabier. Musika helburu izatetik pertsona xede hartzera pasatu zinen, sarri nabarmendu izan duzunez. Nola eman zen aldaketa?**

**X.L.:** Ez zen nahita bilatutako zerbait izan. Nire gaztetako ametsa kontzertu handiak ematea zen, jende askoren aurrean, Mikelek lortu duen bezala. Ez zen hori gertatu, eta emanaldi xumeak egiten jarri ninduen. Aldi berean, familia bat ere banuen ordurako, eta diru sarrerak behar ziren etxean. Urte batzuk lehenago, Polonian ikasketak egiten ari nintzela, ikusi nuen nire ikaskideek hurrekin saioak egiten zituztela ikastetxeetan-eta. Ideia hori oinarri hartuta, Euskal Herrian gauza bera egiten hasi nintzen, pianoa furgonetan sartu eta batera eta bestera.

Hasieran gogoz kontra ekin nion ikastetxeetako lanari, egia aitortu behar bada. Bi urte pasatutakoan hasi nintzen hurrekin ondo pasatzen eta gozatzen, eta aldaketa bat sumatzen hasi nintzen: eskoletako esperientziek erakutsi zidaten musikak indar ikaragarria duela umeengan. Eskola ia denetan daude heziketa bereziko ikasleak, eta haiengan batez ere, musikak erreakzio harrigarriak sortzen dituela ikusi nuen. Kasu batzuetan, miresgarriak ere bai.

**Bateren bat kontatzerik bai?**

**X.L.:** Ikastetxe batean, eskolan behin ere hitz egin ez zuen ikasle bat zegoen, 5 urtekoa. Behar bereziak zituen. Azken ariketa bezala, ikasleei proposatu nien begiak ixteko eta pianoa entzuteko, gero sentitu zutena azal zezaten. Bada, ume hark, hitz egiten hasi eta azalpenak eman zituen. Malkotan ikusi nuen irakaslea; harrigarria izan zen. Halako bizipenak bat baino gehiago izan dira, eta askotan galdetu izan diot neure buruari: zer ote du musikak jendearen burmuinean halako erreakzioak eragiteko?

**M.K.:** Xabierrek hartu duen bidea txalagarria dela iruditzen zait, eta nire miresmena adierazi nahi nioke. Musika beste maila batera eramaten du bere lanarekin. Nik ere frogatu dut



musika komunikaziorako tresna izugarria dela. Gure kontzertuetan sentitzen duzu hori. Publikoa entzuten dugu ero moduan guk sortutako kantuak abesten. Kantu horiek etxean sortzen ditugu, bakarrik, giro intimoan, eta gero jendeak barru-barruan sentitzen dituela ikustea haluzinagarria da. Abestiek beste dimentsio bat hartzen dute.

**Sentimenduez, emozioez eta pertsonen arteko komunikazioaz ari gara hizketan. Horrek guztiak osasunarekin lotura duela esan daiteke. Do Re Ni egitasmoaren barruan, zahartzaro aktiboaren gaineko ikerketa bat ere gidatu zenuen iaz, Xabier. Musikak 60 urtetik gorako pertsonen bizi kalitatea, egoera mentala eta egoera kognitiboa hobetzeko eskaini ditzaken aukerak aztertzea zuen helburu ikerketak. Zer nolako emaitzak bildu zituen?**

**X.L.:** Niretzat esperientzia hura zoragarria izan zen. 85 boluntariok parte hartu zuten ikerketan, eta dantza, kantua eta antzerkia uztartuz, ikusizun bat prestatu genuen. Asmoa zen sei hi-

labetean egitea prestaketa prozesu hori; alegia, pertsona horien burmuina sei hilabetez estimulatatu nahi genuen, horrek eragin zitzakeen onurak neurtzeko.

Hasieratik, bagenekien denbora tarte hori oso laburra zela. Izan ere, neurologoek diotenaren arabera, gutxienez bost edo sei urteko estimulazioa beharko litzateke garunean aldaketak antzeman ahal izateko. Zoritxarrez, espero baino denbora gutxiago izan genuen ikerketa gauzatzeko, izurriteak bete-bete harrapatu gintuelako. Azkenean, estimulazio fasea bost astekoa izan zen; hau da, boluntarioek, bost astez jardun zuten entseguak egiten. Beraz, ez genuen espero ikerketaren emaitzetan datu esanguratsuak topatzea, eta zenbakietan ez zen ezer handirik azaldu, baina egon ziren aldaketa txiki batzuk. Horri balio handia ematen diogu. Alegia, musikoterapia bost astez bakarrik aplikatu zela kontuan izanda, ikaragarria da burmuinean detektatutako hobekuntza txiki horiek gertatu izana.

Izan daiteke guk detektatuko onura horiek kasualitateagatik agertu izana, eta ziurtatzeko, berriro metodo zientifikoa aplikatzea gustatuko litzauguke. Hau da, ikertzen jarraitzea.

**Osasunari lotuta, Mikel, hedabideetan hitz egin izan duzu duela bi urte gauditutako minbiziari buruz. Sendatze prozesuan zehar, musikak zer nolako papera jokatu zuen?**

**M.K.:** Minbizia gogor erasotzen eta tratamendu gogorak hartzen ari nintzen uneetan, ez nintzen ezertarako gai. Gitarra alboan izaten nuen, baina ez nuen jotzeko indarririk. Momentu horietan, nire argazkiak eta diskoak ikusten nituen, eta Mikel Anestesia izatetik oso urruti nengoela iruditzen zitzaidan. Nahikoa nuen egunero esnatu, jaiki eta aurrera jarraitzearekin. Arrotza zitzaidan musika munduarekiko gutzia, beste mundu batean sartu ninduen gaixoaldiak.

Hilabete gogor haietan, Iñigo Muguruzaren heriotza ere kolpe galanta izan zen niretzat. Hari omenaldi bat egiteko ideia izan zuten lagunek, eta ordura arte, nik ez nituen baxua eta gitarra ukitu ere egin. Negu Gorriakeko kideek bazuten nirekiko kezka, gaixotasunari buelta ematen hasi nintzen arren, artean pattal nengoelako. Une hartan gauza bitxia gertatu zi-

tzaidan: indar berezi bat sentitu nuen aurrera egiteko; ez dakit, agian Iñigok bidaliko zidan beste aldetik...

Baxua jotzeko gai nintzela ikusita, Iñigoren omenezko kontzertua eman genuen Bilboko Kafe Antzokian, eta oholtza gainean 25 urte gazteagoa sentitu nintzen, oso indartsu. Esperimentzia haren ondotik, musikarako grina berreskuratu nuen, eta Anestesiarekin entseguak egiteari ekin genion. Beraz, une gogorrenetan ez, baina gaixoaldiari buelta ematen hasitakoan, musikak asko lagundu zidan aurrera egiteko.

**Bukatu aurretik, Manolo Urbietaz galdegin nahi dizuet. Hari buruz aritu zarete hizketan elkarrizketarako eseri baino lehen. Aipatu duzue, hura aspaldi ohartu zen heziketarako musikak eskaintzen zituen aukerez.**

**X.L.:** Zarauzko Ikastolako lehen promozioko irakaslea izan zen Manolo. Musika umeak hezteko erabiltzen zuen, intuizioz seguruenik. Abestiak asmatzen zituen haurrekin Europako ibaiak edo hiriburuak ikasteko, ikaragarria zen. Nire ustez, gizon hura aurreratuegia izan zen bere garairako.

Manolorekin ibili ziren lehen haurren artean, gela berean, bi futbolari profesional eta Andoni Egaña zeuden. Kasualitatea ote da? Musikak presentzia oso handia izan zuen ume haien heziketan, sekulakoa, eta nire ustez, horrek eraginen bat izango zuen haiengan. Kantuz gauza asko egiten zituzten ikasgelan. Zoritxarrez, hori kontra etorri zitzaion Manolori: umeek kantuan beste ezer ez zutela ikasten pentsatzen zuen jendeak.

**M.K.:** Nik ere ikaragarri miresten nuen Manolo, nire irakaslea ere izan zen. Urte batzuk Antoniano ikastetxean egin nituen, fraile eta sotana ilun artean, dena gaztelaniaz: 'pecados naturales', 'sobrenaturales'... Giro iluna zen. Aurreago, Manolo izan zen gure irakaslea, eta mundu ilun hura koloretsu bihurtu zuen. Errezatetik kantu dibertigarriak abestera pasatu ginen. "Hau ere eskolak hartzea ote da?" errepikatzen nion neure buruari. Primeran pasatzen genuen.

Duela urte gutxi, Manoloren omenezko diskoa koordinatzeko eta nire estudioan grabatzeko aukera izan nuen. Punta-puntako artistekin osatu genuen 'Bakarrik eta libre' diskoa. Ma-





nolo ikaragarri emozionatu zen entzun zuenean. "Rockeroak ni omentzen...", esaten zuen barrez. **X.L.:** Manoloren lan egiteko moduak erakusten du musika beste hainbat esparrutan trebatzeko erabil daitekeela. Alemaniako futbol talde ezagun batean, esaterako, musika bidezko estimulazioak egiten dituzte jokalarien errendimendua hobetzeko.

Ez dugu benetan ezagutzen musikaren potentziala. Rafael Yuste neurobiologo ezagunarekin elkartu nintzen behin, eta garai batean penizilinarekin gertatu zenarekin alderatu zuen musikarekin gerta litekeena. Penizilina iraultza ikaragarria ekarri zuen haren potentziala zuku-tu zutenean; ordura arte, baina, ez zuen izan beste munduko garrantzirik.

Litekeena da, urte batzuk barru, musikarekin ere gauza bera gertatzea, eta bere erabilera

gizarteko alor desberdinetan modu sakonagoan aplikatzea. ■



Ikusi eksklusiban Mikel Kazalisi eta Xabier Lizasori egindako elkarrizketa QR kodea eskaneatuta.



**Desnibela** 188 m  
**Zailtasuna** ●●●●●  
**Luzera** 7,7 km  
**Denbora** 1 ordu eta 30 minutu

**Erreferentziak**  
**0.00** Herriko plaza  
**0.10** San Martin ermita  
**1.00** Antillako hondartza  
**1.30** Herriko plaza



## ITSASOAREN ETA LURRAREN OREKA

**MIREIA GALARZA BASTIDA**

Oriorekin pentsatuta, burura datozen lehen elementuen artean dago itsasoa. Herriak baditu, ordea, itsasotik oso gertu bisitatzeko moduko beste hainbat txoko ere. Horietako bat da Itxaspeko ibilbidea. Zazpi kilometro eta erdi pasatxo ditu, eta ez da 200 metroko desnibel positibora iristen. Beraz, aproposa da edozeinentzat, baita familiako gaztetxoekin egiteko ere.

Orioko plazatik abiatzen da ibilbidea, San Nikolas kaletik, izen bereko elizara iritsi arte. Bertan, Goiko Kaletik barna, eta Pilliku plazatik pasata, goraka jarraitu behar da. Izatez, hori da ibilbideko aldapa nabarmenetakoa. Pixkanaka-pixkanaka, Orioko hilerria pasata, San Martin ermitara iritsiko da mendizalea, eta handik aurrera jarraituta, A-8 autobidera doan errepidearekin egingo du topo. Kontu handiz tunel txikia pasa, eta harribidetik goraka jarraitu beharko du ibilgunea mendizaleak, zebrabidetik pasa eta aldapan gora jarraitzeko. Handik gutxira, bidegurutze bat dago.

Eskuinekoa Kukuarriko bidea da, baina kasu honetan, Itxaspeko ibilbidea egiteko, ezkerreko bidea jarraitu behar da. Puntu horretatik aurrera, zuhaitzez babestuta dago ibilbideko zatia, baina badago begiratoki eder bat ere, atsedena hartu nahi duenarentzat. Handik aurrera, maldan behera jarraitzen du ibilguneak, Itxaspe baserriaren aldamenetik, itsasoko ikuspegi paregabeekin. Hori da, hain zuzen, itsasora begira Orion dagoen

baserri bakarrenetako bat. Handik beheraka jarraitu, eta, konturatzera, Antillako hondartzan amaitzen da ibilbidea. Urtearen garaia arabe-ra, itsasoa bainu bat hartu edo inguruko tabernetan trago bat hartzea onena!

### Motzean

#### Lau geldialdi

- Bariko San Nikolas eliza
- San Martin ermita
- Itxaspe baserria
- Antillako hondartza

#### Nola iritsi

- Garraio publikoan: Zarautz nahiz Zumaiatik autobusez zein trenez irits daiteke Oriora. Garraio publikoak utzitako geldialdietatik ez oso urrun dago ibilbidearen hasiera.
- Autoz: Eskualdeko beste herrietatik, Azpeititik edo Zestoatik, esaterako, autoz joan daiteke Orioraino. Uda sasoiaren joanez gero, TAO zerbitzua egongo da martxan, beraz, ordaindu egin beharko dute autoa herrigunearan uzten duten herritarrek. ■




Ikusi eskusiban Xabat Olaizola eta Sara Peña Orioko bizilaguna txangoan, QR kodea eskaneatuta.



**TELEBISTAN ERE**

**GUKA!**  
erto





# "Azkoitian gustukoa dute gimnastika erritmikoa"

**VISI GUTIERREZ** ZUBIBERRI GIMNASTIKA ERRITMIKO TALDEKO ENTRENATZAILEA

Umea zela hasi zen gimnastika erritmikoa praktikatzen, eta egun, Zubiberri gimnastika erritmiko taldeko entrenatzailea da eibartarra; hain zuzen, aurten 24 urte beteko ditu Azkoitiko taldea zuzentzen.

"Gustuko" du gimnastika erritmikoa Gutierrezek; haren hitzetan, kirol hori "guztia" da.

Testua: **Andoni Elduaiei Soraluze**. Argazkiak: **Andoni Elduaiei Soraluze eta utzitakoak**.

Marraskia: **Gorka Larrañaga**.

**V**isi Gutierrezek (Eibar, 1974) kasik azkoitiartzat du bere burua; izan ere, duela 24 urte iritsi zen Azkoitira, Zubiberri gimnastika erritmikoan aritzen ziren kirolariak entrenatzera. Umetan hasi zen eibartarra kirol horretan, 7-8 urte zituela. "Eibarren hasi nintzen gimnastika erritmikoan. Pixkanaka-pixkanaka, ordea, ikasle lanak uzten joan nintzen", dio Gutierrezek. Kirolari izateari utzi zion, baina ez gimnastika erritmikoari. "Eibarko entrenatzaileari laguntzen hasi nintzen berehala. Zaletasun moduan hartu nuen orduan lan hura, baina Eibarko entrenatzaile hark taldekide batzuk entrenatzaile izatera bultzatu eta animatu gintuen".

Gutierrezek ia bizitza guztia eraman du gimnastika erritmikoari lotuta. "Txiki-txikia nintzenetik jardun dut; betidanik gustatu izan zait". Era berean, Gutierrezek balioa eman dio kirolaren bitartez taldekideekin egiten den harremanari. "Kirolaria nintzenean oso harreman estua genuen taldekideen artean; esaterako, taldekideren bat txapelketa garrantzitsuren batera sailkatuta

bazegoen, elkarri laguntzen genion". Besteari laguntzea "gustuko" izan du beti Zubiberriko entrenatzaileak, eta kirola utzi zuenean entrenatzaileari "laguntzen hastea" erabaki zuen. Behin urrats hori egin zuenean, entrenatzaile titulua ateratzen hasi zen, eta bere jaioterrian, Eibarren, egin zituen lehen lanak. 1998an iritsi zen Azkoitira, baina aurrez inguruko beste herri askotan jardun zuen gimnastika erritmiko taldeak zuzentzen.

Kirola besteen esanetara praktikatzea edo norbere erara besteei praktikatzea ez da gauza bera; argi du hori Gutierrezek. Hala eta guztiz, entrenatzaile izateak "gauza on bat baino gehiago" dituela uste du. "Ikaragarria da ikasleei lana ondo ateratzen zaienean eta hura gustura ikustean sentitzen dudana poza. Azken finean, entrenatzaileak izan ohi gara ikasleei bidea egiten laguntzen diegunak, eta emaitza ona bada, gu ere poztu egiten gara". Era berean, alde gogorak ere baditu entrenatzaile lanak. "Zaila eta tristeza izaten da ikasleek ariketa behar bezala egiten ez dutenean. Txapelketaren egunean minutu eta erdian duten guztia eman





behar izaten dute, eta denboraldi onena egiten ari den ikasleak ere edozein unetan egin dezake huts. Urduritasunagatik edota norbere gain ez dauden beste arrazoi batzuegatik gaizki irten daiteke ariketa. Oso gogorra da une hori".

### Zubiberri, egonkor

24 urteko ibilbideak kluba inork baino hobeto ezagutzeko balio izan dio Gutierrez, eta entrenatzailearen esanetan "ondo" dago Zubiberri. "Emaitzei erreparatuta, ondo gabilza. Izan dira urte hobeak, baina baita txarragoak ere". Egun, 80 ikasle inguru dituzte Zubiberri taldean. "Ikasle kopuru berbera dugu azken urteetan, eta hori ona da. Ni iritsi aurretik ere, Azkoitian jende asko ibili ohi zen kirol horretan. Gimnastika erritmikoa gustukoa dute Azkoitian". Entrenatzailea, baina, ez zaio gustatzen emaitzei gehiegi erreparatzea. "Ez diet garrantzirik ematen, azkenen finean, podiumera hiru kirolari igotzen direlako. Posible da, ordea, laugarren gelditu denak bere ibilbideko txapelketarik onena egin izana. Ikasleei esaten diet garrantzitsuagoa dela txapelketa batetik bestera hobetzen joatea; izan ere, hurrengo txapelketa aurrekoa baino hobeia izan dadin saiatu behar duet kirolariek. Beti beste pertsona batzuen aurka lehiatu behar izaten da, eta guztia eman arren, posible da beste pertsona hobeia izatea. Horrek ez du esan nahi zu txarra zarenik, ordea. Horregatik guztiagatik, esfortzuari ematen diot garrantzia".

Ofizialki, Gutierrez da Zubiberriko entrenatzailea, baina eibartarra ez da bakarrik aritzen ikasleak zuzentzen; izan ere, Lourdes Muñoz gimnasta ohiak laguntzen dio



entrenamenduak gidatzen. "Muñozek bezala, tartean-tartean beste ikasle ohi batzuk ere lagundu izan didate, baina egun, biok zuzentzen ditugu lan saioak".

Entrenatzerakoan lanari eta konstantziari garrantzia ematen saiatzen dira taldearen bi zuzendariak. "Lan eginda lortzen dira emaitzak. Lasai egotea garrantzitsua da gimnastika erritmikoan, baina urduritasun puntu bat edukitzea ere normala zein ona da. Gozatu egin behar da kirol honetan. Beste kirol batzuetan ez du axola aurpegi txarra edukitzeak edo haserretzeak, baina gimnastika erritmikoan hori ezin da aurpegian nabaritu ariketa zailena egiterakoan ere". Gimnasta txikienekin edo helduekin lan egitea, ordea, "desberdina" da haren arabera. "Haurren kasuan, motibazioari ematen diogu garrantzia, jolasetik gehiago baitu haientzat. Halaber, gauzak sarriago aldatu behar izaten ditugu, bestela ikasleak aspertzeko arriskua dago. Helduena, berriz, diziplina hutsa da.

### Visi Gutierrez

- **Adina:** 47 urte.
- **Ikasketak:** Selektibitatera arte egin nituen.
- **Lanbidea:** Entrenatzailea eta epailea.
- **Entrenatzailea ez banintz...** ez nau beste ezerk asebetetzen. Gimnastika erritmikoa da nire mundua.
- **Entrenamenduak amaitutakoan...** etxeko beste eginkizunak egin behar izaten ditut.





Urtearen hasieran ariketa bat prestatzen dugunetik maiatzean denboraldia amaitu arte, behin eta berriz errepikatzen dugu ariketa".

Gimnastek koreografiak landu behar izaten dituzte eguna joan eta eguna etorri, asteburuan jokatzeko txapelketetan erakusteko. Ez da lan samurra izaten beti berrikuntzaren atzetik jardun behar izatea, baina Gutierrez ondo moldatzen da. "Urteen poderioz lortzen den esperientziak laguntzen du koreografia berriak sortzen eta prestatzen. Hasierako urteetan asko kostatu zitzaidan, irudimen eta sormen handia behar baitira. Orain, ordea, ia bere kasa sortzen dira koreografiak". Gimnastika erritmikoan zuzen errespetatu behar diren arauak daude, kodeen araberrako elementuak sortu behar izaten baitituzte. Gutierrezek "asko" jarraitzen ditu bideoak, txapelketak eta gainerako klubetan lanak.

### Gimnasiaren beste ertzetan

Zubiberri moduko eskoletan aritzen diren entrenatzaileek ez dute prestaketa lana bakarrik egiten. Bestelako egiteko asko ere izaten ditu Gutierrezek, eta horregatik, haurrekin lanean arizetik haurrentzat lan egiten jarraitzen du

etxera joandakoan ere. "Entrenatzailea izateaz gain, gimnastika erritmikoarekin lotura zuzena duen beste hamaika gauza egin behar izaten ditugu: musika, ariketak eta arropa prestatu. Mailotak diseinatu ere egin behar izaten ditugu, eta horretan gurasoen laguntza izaten dugu gehienetan. Entrenatzaileak makilatzaileak, ile-apaintzaileak eta psikologoak ere bagara. Lan asko egiten dugu. Nire bizitzako gauza gehienak gimnasiari lotuta daude, gimnastika erritmikotik kanpo ere". Gutierrez, gainera, federazioan ere ari da lanean. Besteak beste, Gipuzkoako Gimnastika Federazioko batzorde teknikoko presidentea da eibartarra, eta Euskadiko Gimnastika Federazioko epaileen batzordeko kide ere bai.

Gimnastika erritmikoa "guztia" da entrenatzailearentzat. "Gimnastika erritmikoari esker ari naiz bizitza aurrera ateratzen, eta horregatik, zortekoa naiz, gustukoa eginez lan egiten dudalako". Eibartarrak Azkoitian jarraitu nahi du datozen urteetan ere. "Ez diot epemugarik jarri nahi nire lanari. Espero dut erretiroa hartu arte Azkoitian segitzea. Herri askotan aritu naiz entrenatzaile lanetan, baina ez Azkoitian bezainbeste urtez". ■■■

# BETI ZUREKIN GIPUZKOA

## 943 903 450

Bertako lagagailuak-ekin, urteko 365 egunetan 24 orduz izango dituzu gure zerbitzua, Solbuespenik gabe.



GIPUZKOAKO LANAK



GIPUZKOAKO LANAK



GIPUZKOAKO LANAK



www.bertako.eus



## ELURRA MENDIAN

Zerbat animalia ikusten dituzu?



## SUDOKU

(pini sudokurik bakoitzeko letraK idazlekin beteekin. Gogoratu hieki bakoitzak behin agertu behar duela aurte, letra eta lau finkoko area bakoitzeko.

**ZOPA** ala **POZA**?

A		Z
	P	
Z		
O		

**BLAI** ala **BILA**?


B		I
L	B	
A		

**ZAPI** ala **AZPI**?


A	P	
	A	
		I
	Z	

## DOMINO ZATIA

Bete itzazu fitxetako espazio zuriak, domino zati hau zuzena izan dadin.







## IZEIA

- Erreparatu Gabonetako zuhaitz honen apaingarriei. Bola guztiek dute pareta, salbu eta batek. Zein da?
- Zein ederrak diren elurrezko panpinak. Zenbat ikusten dituzu? Eta zenbat Olentzero?

Soluzioak ikusteko:  
[www.plazanbazan.eus/](http://www.plazanbazan.eus/)

# Antzokiak eta zinema aretoak



**TESTUA:** KEPA ALBERDI

**ARGAZKIAK:** KEPA ALBERDI ETA MAXIXATZEN

Gaur egun, nahi ditugun genero guztietako filmak ikusteko aukera dugu zinema aretoetan, eta horretarako, pelikula desberdinak une berean ematen dituzten *multizine* izeneko eraikinak ditugu nonahi. Baina, joan den mendearen hasieran, filmak proiektatzeko teknikak, zinema aretoak zein mundu horrekin lotutako beste zenbait arlo guztiz desberdinak ziren. Antzerkiak berak ere aldaketa asko jasan ditu: esate baterako, lehen, antzezlanak herrian bertan prestatzen ziren, eta gaur egun, kanpotik etortzen dira obrak antzeztera. Azkoitian, antzezlanek bezala, film emanaldiek ere arrakasta handia izan zuten aurreko mendean, eta horren ondorioz, garaiko egoera sozialari eta politikoari lotutako bitxiak konta ditzakegu, baita zenbait pasadizo xeble eta atsegín ere.

Aurreko mendearen hasieran ez zen antzokirik herrian. Kulturarekin lotutako ekintzak, antzezlanak barne, plazan zegoen Alondegian egiten ziren, duela gutxi arte Torre Zuri erakustokia zegoen lekuan, hain

zuzen ere. Alondegia berruian kalean egon ohi den galtzada zegoen, eta eremua pixka bat txukundu ondoren, han moldatzen ziren ekitaldiak egiteko.

Ordurako, zinema emanaldiak indarra hartzen hasiak ziren; Euskal Herriko lehen zinema emanaldia Donostian izan zen, 1896ko uztailan. Azkoitiko lehen pelikula saioak, berriz, 1903koak dira, eta horiek udaletxeko bilkura aretoan proiektatzen zituzten. Filmak mutuak izanik, haiek proiektatzerakoan, pertsona bat arduratzen zen eszena desberdinetako pasadizoak kontatzeaz, eta piano doinuz ere girotzen zen aretoa. Herriz herri ibiltzen ziren teknikari batzuk arduratzen ziren filmak eskaintzeaz eta proiektatzeaz. Teknikari haiek udalaren baimena jaso behar izaten zuten filmak proiektatu ahal izateko, eta lanak zegokion zentsuratzaileari erakusten zizkieten aurretik. Joan zen mende hasieran, alkatea bera arduratzen zen, gainbegiratzaile moduan, aurrez filmak ikuskatzeaz. Behin filmak garaiko moralaren aurkako eszenarik ez zuela ikusi eta gero ematen zuen

hark pelikula botatzeko baimena. Gerora, apaiz bat hasi zen ikuskatzaile lanak betetzen, baina hura lan handia zenez, azkenean, Gotzaintza hasi zen zentsuratutako pelikulen zerrenda bidaltzen. Sei zentsura maila zeuden: *zuria*, umeak ikusteko modukoa; *urdina*, gazteentzako; *arrosa*, morala eta etikoa, baina pertsona formatuentzat; *gorria*, film ausarta, ez ikusteko modukoa; *berdea*, pornografikoa, ez ikusteko modukoa; eta *beltza*, fedearen eta erlijioaren aurkakoa eta erasotzailea, ez ikusteko modukoa. Garai hartan, herritarrek buruz zekiten kolore bakoitzaren esanahia. Gerora, sinbologia aldatu egin zen, eta Erriberaneko Txurrieriako erakuslehoan jartzen bazuen filma *3R* mailakoa zela, hobe hura ikustera ez joatea; izan ere, gazteek, adibidez, kongregaziotik kanpora geratzeko arriskua zuten. Gai hari lotuta, Olimpiak nahiko begirune zuen herriko agintarientzat eta eliz gizonentzat, han ematen zituzten filmak "moralitatearen barruan" zeudelako; kontrakoak gertatzen zen Gurea frontoian eskaintzen zituztenekin, esaten baitzuten







Ezkerretik eskubira, parrokia azpiko kantzela, Sindikatuko lokala zegoen eraikina, Olimpia eraikina zena eta Baztartxo antzokia.

film batzuk lizunkeriaz betetakoak zirela.

Aurreneko film emanaldiak udaletzeko batzar aretoan izan baziren ere, ondoren beste hainbat gelatan eta aretotan eskaintzen hasi ziren: Gurea pilotalekuan, Olimpia antzokian, parrokiako kantzolean, Sindikatuko lokalean, Floreagako aretoan, eta azkenik, Baztartxo aretoan.

Udaletzeko batzar aretoan denbora batean filmak ematen aritu ondoren, herriko zenbait talde politikok hartu zuten erreleboa, eta horiek beren lokaletan hasi ziren film emanaldiak antolatzen. Talde haietako bat Sindikatuko lokalean hasi zen emanaldiak antolatzen, eta saio haiek aurretik eskaintzen ziren musika emanaldiekin uztartzen zituzten. Sindikatu lokal hura gaur egun Kutxa entitatea dagoen eraikin berean zegoen. Han zegoen filmen proiektorea, antza denez potentzia gutxikoa zen, eta pantaila lana egiten zuen teloi edo izara lokal erdian ipintzen zuten, modu horretan filma aretoaren bi aldeetatik ikusteko. Proiektoreak pelikula mutua izararen alde batetik botatzen

zuenek, filmaren azpian azaltzen ziren hizkiak ondo ikusten ziren alde hartatik, baina alderantziz, bestaldetik. Hori horrela, hizkiak ondo ikusten zituzten aldekoek 10 zentimo (hiru kuartokoa edo txanpon beltza) ordaintzen zituzten, eta bestaldekoek, letrak alderantziz ikusten zituztenek, bost zentimo, hau da, "xemiko bat". Azken horiek umeak izaten ziren normalean.

Aurreko mende hasieran, antzerki zaletasun handia zegoen Azkoitian, eta giro hartan, antzoki baten beharra ikusten zen herrian. Eliza bera ere oso aktiboa zen antzerki jardunetan, eta giro hura aprobetxatuz, Olimpia eraikinean antzoki bat egokitzea erabaki zuten. Eraikinaren beheko partean antzokia eta gainean zortzi etxebizitza egiteko proiektua atera zen aurrera, eta 1930ean eraiki zuten hura. Horrela, gerra aurretik eta gerora ere, antzerki emanaldi asko izan ziren Olympian, eta herriko aktore askok parte hartzen zuten; horietako batzuk, Txakalanekuek adibidez, ospe handia lortu zuten. Olympiak, beheko solairua eta anfiteatroa zituen, azken hori *gallinero* izenekoa. Ez zen hori izen berezia zuen eremu bakarra,

ezkutuko kontuak zirela eta, "beso motzen ilara" deitzen baitzitzaion aretoko azkenengo lerroari. Olympiako beheko plantan butakak zeuden, eta anfiteatroan egurrezko jarlekuak. Azken horiek merkeagoak ziren, eta gazteak, normalean, han esertzen ziren. Pixkanaka, film mutuak botatzen hasi ziren, eta ohikoa zen horretarako prestatutako pertsona baten ahotsa entzutea: ikusleei pelikularen gorabeherak kontatzen zizkien hark, "orain gaiztoak tiroka hasiko dira" eta antzeko azalpenak emanez. Tarteka, zuzeneko musika ere jartzen zuten pelikula girotzeko, esaterako, piano baten soinua.

Azkoitian ez zen Olimpia antzokiaren edukiera zuen beste lokalik, eta horregatik, herriko batzarrak eta bestelako ekitaldi handiak han egiten zituzten; besteak beste, Kooperatibako batzarrak, mitin politikoak, enpresetako batzarrak, konferentziak eta abar antolatzen ziren han. Pertsona ezagunen eta garrantzitsuen lekuko ere izan zen Olimpia, eta beste batzuen artean, Jose Antonio Agirre lehendakaria, Manuel Irujo jeltzalea, herriko hizlari jeltzale

handia izandako Julene Urzelai eta Martinez Anido ministro kontserbadorea izan ziren han. Bitxia bada ere, 1988tik 1992ra artean Eliza funtzioa ere bete zuten Olimpiak, parrokiako lanak zirela eta. 1950eko hamarkadaren amaieran itxi zuten behin betiko, eta 2009ko otsailean eraitsi zuten eraikina.

Floreagako eskolan eta parrokia azpiko kantezean ere proiektatzen zituzten pelikulak. Garai bateko moralitate kontuak zirela eta, bertako *hermanoek* Floreagan mutilentzako pelikulak ematen zituzten, eta kanzelako proiektzioak, berriz, neskentzako izaten ziren. Floreagan, pelikulaz aparte, antzerki emanaldiak ere izaten ziren, eta herriko gaztetxo guztiak hara joaten ziren igande arratsaldetan. Elizak bazuen garai hartan umeak mezetara joatera behartzeko halako trikimailu bat: igande goizean, hurrek 08:00etako meza eta komunioa izaten zituzten Floreagan, eguerdian meza nagusia parrokian, eta gero, beste elizkizun bat izaten zuten elizako kapila batean. Hiru elizkizun haietara joanez gero, arratsaldeko filma edo antzezlanak ikusteko txartelak lortzen zituzten, eta sarrera libre izaten zuten, 15 zentimo (3 xemiko) aurreztuz.

Bestalde, Floreagako antzerki emanaldiek oso ospe handia zuten. Gazteak 22:00 aldera

joaten ziren, lanetik atera eta gero, antzerki entseguak egitera. Lan bikaina egin zuten urte askotan, 60 obra baino gehiago prestatu eta antzestu baitzituzten, horiek ikustera joaten zen herriko jendetzarentzat pozgarri.

Azken hamarkadetan, Baztartxon izan dira gure herriko film emanaldiak eta antzerki funtzioak. Baztartxo 1958an ireki zuten, bertako bazkideen artean: Zelaia, Roman, Miguel Romarate eta Cuende herritarrak zeuden han. Beste garai batzuk ziren, eta film bakoitza bost karretetan banatuta ekartzen zuten 20 kilo pisatzen zuen zaku batean. Bi elektrodoren arteko suarekin lortzen zen filma eskaintzeko argia, eta ondo zaindu behar zen, pantaila ilunduz gero txistu hota ederra entzuten baitzen aretoan. 1984ko apirilaren 30ean, justu 25 urte betetzen zituen urtean, itxi egin zuten Baztartxo, eta horrela egon zen zazpi urtez. Zer esanik ez, herriko zinema eta antzoki areto bakarra itxita egon zen urte haietan kulturaren hutsune nabarmena sentitu zela Azkoitian.

Baztartxon Jose Inazio Aramendi egon zen urte askoan lanean, lehenengo laguntzaile moduan eta gero operatzaile bezala. Aramendik badu pasadizo pila bat kontatzeko, eta horietako batek dio Baztartxo dela oraindik Titanic transatlantikoaren urperatu

ez duen zinema areto bakarra. Dirudienez, pelikula famatu hura ematen ari zela, proiektorea hozteko motorra gelditu egin zitzaion, eta barrua asko berotzen zela ikusita, proiektzioa moztea erabaki zuen. Oraindik transatlantikoaren urperatu gabe omen zegoen, eta hortik datoz geroztik entzun dituen txantxa denak. Tomas Guembek hartu zion Jose Inazio Aramendiri erreleboa, eta gaur egun hark jarraitzen du operatzaile lanetan. Operatzaile lana aretoko foku, argi, soinu eta bestelako elementuen zaintzarekin eta mantenuarekin uztartzen ditu Guembek, eta beste hamaika zereginen arduraduna ere bada.

Bukatzeko, eta azken bitxikeri bezala, Erriberaneko Txurreriko haurtzaindegiaren historia aipatu gabe ezin utzi. Duela hamarkada batzuk, Txurrerixe dendan ipintzen zuten pelikulen kartelera, orduan kuadroa deitzen ziotena. Kontua da, bikote ezkonduak zinemara joaten zirenean, umeak Txurrerixe dendan uzten zituztela. Bertan banku luze bat zegoen, eta han egoten omen ziren eserita kontuak esaten eta tarteka kalera atera eta jolasten. 21:00 aldera bukatzen zen emanaldia, eta orduan pasatzen omen ziren gurasoak berriro ere Txurreritik, umeak jaso eta etxera erretiratzerako. ■■■

**floreaga**  
BILASTAR IKASTETXEA

**FAMILIAK ETA IKASTETXEA, BAT EGINDA HEZTEN**

"Ikasleak zoriontsu izatearen giltza konfiantzan dago"

**KURBEMTXARIBULAZIOK URTARRILAREN 17tik 28ra**

Aurremerkituladua 2022-2023 ikasturterako da. HH, LH eta DBHn egin daiteke.

**Bilastarrak**  
Bilastarrak s.a.  
Bilastarrak s.a. AZKOITIA  
Tel. 943 85 30 43  
www.floreaga.es  
floreaga@floreaga.es

# Kolorearen zientzia



KARI ALBERDI

**U**rdin, arrosa, zuri, bat ere ez edo guztiak norbere eran, norbere martxan". *Entera daitezela* (Bulego). 70eko hamarkadan, etxeetako telebistetan irudiak koloretan atara ziren lehenengo aldiz. Hogei urte beranduago, XXI. mendean atarian, Munduko Osasun Erakundeak homosexualitatea buruko gaixotasunen zerrendatik atara zuen azkenik. 2021eko uztailaren bueltan, "marikoi" oihupean jipoituz kendu zioten bizitza Samueli. Gaur norbait atara dute indarrez armairutik eta bihar nork daki eguzkia aterako den hemendik.

Definizioetan sartuz, uhin luzera ezaguneko uhin elektromagnetikoen gure ikusmenean sortzen duten sentsazioetako bakoitza *kolore* moduan izendatzen dela dio Zientzia eta Teknologiareneko Hiztegi Entziklopedikoak. Ikusten dugun kolore bakoitza objektuak xurgatzen eta islatzen dituen uhinen arabera da. Hori dela eta, arrosa den objektu batek, adibidez, gainerako koloreen erradiazioak xurgatzen ditu, eta arrosa bera islatzen du soilik. Etxeko txikienek ingurutik jasotako iruzkin nahiz keinuak xurgatu eta islatzen dituzten modu berdintsuan.

Magia (eta zientzia ere) hiru kolore primarioekin hasi ohi da, eta gainerako koloreak horien nahasketetatik sor daitezke. Gorria, urdina eta horia badira ere ohikoenak eta ezagunenak, telebistan gorria, berdea eta urdina (*RGB* ingelesez) erabiltzen dira nahasketen hastapenentarako. Inprimatze lanetan, berriz, magenta, zian eta horia dira urrezko hirukotea. Gizartearen kasuan, errespetua, maitasuna eta bakea diren hiru kolore primarioekin hasi, eta gainerakoa horien nahasketetatik sortuko dela esango du Mr. Wonderfulen agendaren batek seguruenik.

Hautzaroen eguzkia irudikatzen biribil hori bat margotzen genuen, eta teilatuek kolore gorria zuten. Zerbait geroago zebra-bideak semaforoak berdetzen zirenean gurutzatzen ikasi genuen. Orain egun tristeei, egun euritsuei, egun grisak deitu ohi diegu, astelehenei gehienetan. Ingelesez ere bada urteko egun tristeenari erreferentzia egiten dion koloredun egun bat, *Blue Monday* moduan ezaguna. Guk berriz, urdina ausardiarekin eta inklusioarekin lotzen duen marea bat dugu gure artean. Urte berriak, 2022 honek, aukera berriak dakartzala diote, ilusioa eta esperantza tarteko. Berdeak dira horiek, gure bailara den moduan. Laranja da laranja eta zuloa beltza. Umorea horia zen telebista saio hartan, eta edalontzian gardena den urdin guztiak hartzen ditu itsasoratzean.

Koloreak desberdintzeko zailtasunari edo ezintasunari daltonismo deitzen zaio. Koloreak desberdintzeko gogo faltari beste hainbat izen jarri ahal dizkiogu. Erromako zubia den bizitza honetan ez baita tokirik zuri-beltzean ulertu nahi duenarentzat. "Norbere kolore, norbere eran, norbere martxan". ■■■

**URTE BERRIAK, 2022  
HONEK, AUKERA  
BERRIAK DAKARTZALA  
DIOTE, ILUSIOA ETA  
ESPERANTZA TARTEKO**



# 2021ari errepassoa

Joan da 2021. urtea, eta askotariko albisteak utzi ditu. COVID-19aren izurriteak herritarren bizimodua goitik behera baldintzaten jarraitu du, baina hortik haratago, hamaika gertakari izan dira herrian urtean zehar. Bukatu berri den urtean nabarmendu diren albisten errepassoa egin du Maxixatzenek.

Testua: **Ane Olaizola**. Argazkiak: **Maxixatzen**.





**NEURRI MURRIZTAILEAK, URTARRILEAN**

Aurreko urtea hankaz gora jarri zuen izurriak herritarren bizimoduan goitik behera eragiten jarraitzen zuen 2021aren hasieran ere. Etxeratze agindua indarrean zegoen artean, eta Eusko Jaurlaritzak neurri murriztaile zorrotzagoak ezarri zituen urtarrilean; besteak beste, eremu itxi zein irekietan lau pertsonetara mugatu zituen taldeak, eta konfinamendu perimetrala ezarri zuen; hau da, herritarrek ezin zuten beren udalerrietatik atera, hezkuntza, lan, zaintza eta osasun arrazoiengatik ez bazen.

Bestalde, ostalariek bete behar zituzten neurri zorrotzak salatzeko, protestak egin zituzten han-hemenka, eta herriko tabernariak bilera egin zuten urtarrilean, erakundeari beren egoera azaltzeko.



**URTEURRENA PRESTATZEN, OTSAILETIK**

Azkoitiak 700 urte beteko ditu bi urte barru, eta urteurrenaren bueltan dagoeneko hasi dituzte hainbat prestaketa lan. Batetik, herriaren sorreraren urteurrena iragartzeko mural handi bana egin zuten otsailean Udane Juaristi eta Gorka Larrañaga artistek Altzibarko biribilgunearen bueltan dauden bi eraikinetan. Bestetik, *Herrilab +700* parte hartze prozesua abiatu du udalak, urteurrena herriaren inguruan hausnartzeko "une egokia" izan daitekeela pentsatuta. Ordutik, inkestak, bilerak eta lan saioak egin dituzte herritarrekin.



### **ARANBARRIRI SARIA, MARTXOAN**

Iñigo Aranbarri aktore azkoitiarrak parte hartzen duen *Fadoak entzuten zituen gizona* antzezlana jaso zuen Donostia antzerki saria, martxoan.

Epaimahaiaren arabera, 2020. urtean Donostian helduentzako antzerki konpainia profesional batek euskaraz eskainitako "antzezlana onena" da amaitu berri den urtean saritu dutena. Xake Produzekioak konpainiaren hirugarren obra da *Fadoak entzuten zituen gizona*, Kepa Errastiren ideia batetik abiatuta, Txarli Andradek idatzia, Getari Etxegaraik zuzendua eta Aranbarrik, Ane Gabarainek eta Errastik berak antzeztua. Hain zuzen ere, Xake Produzekioak konpainiaren antzezlana maskulinitatea lantzeko duen "modu originala" txalotu zuen epaimahaia.



### **MAXIXATZENEN SORRERAREN URTEURRENA, APIRILEAN**

1996ko apirilko ostegun gau batean erein zuten hazia hainbat gaztek, orduan hasi ziren Maxixatzen euskara elkarte izango zen proiektua ontzen. Buruari eraginez eta ekinez, elkarte sortu ez zik, Maxixatzen aldizkariak ere urte horretan ikusi zuen argia aurrenekoz, Andramari egunaren bezperan. Aurten, mende laurdena bete du elkarteak, eta hasi berri den urterako utzi ditu ospakizunak.



### **PILOTAREN GALERA, MAIATZEAN**

Jexux Andueza pilotari ohia zendu zen maiatzaren 14an, 64 urte zituela. Anduezak, bere dinastiako seigarrenak, hainbat txapelketa irabazi zituen pilotari izan zen sasoiari. 1978. urtean, VIII. Munduko Txapelketan urrea lortu, eta urte horretan Espainiako Afizionatuen Txapelketa ere irabazi zuen; urtebetera, berriz, profesionaletan debutatu zuen. Herrian ere arrasto handia utzi zuen Anduezak; izan ere, pilotan jokatzeari utzi ondoren Azkoitiko Oteiza Pilota Kirol Elkartearen ardura hartu zuen, eta 22 urtez aritu zen zeregin horretan.

### **AZKOITIA ETA URRETXU ARTEKO LANAK, EKAINEAN**

Gipuzkoako Foru Aldundiak ekainean hasi zituen GI-631 errepidea hobetzeko obrak Azkoitia eta Urretxu artean. Hain zuzen ere, proiektua gauzatzeko aurreikusitako hiru aurreratze tarteetatik lehena egiteko lanei ekin zieten ekainean, eta hamabost hilabetetan obrak amaituta izatea aurreikusten dute erakundeetako ordezkariak. Obren helburua da errepidearen "trazadura hobetzea" eta "plataforma handitzea".







### **ASTIGARRAGA KIT LINE ENPRESARI SARIA, UZTAILEAN**

Gipuzkoako Enpresaren Sariak banatu zituzten uztailean, eta Astigarraga familia azkoitiarrak gidatzen duen Astigarraga Kit Line enpresak garaikurra jaso zuen Enpresa Nazioartekotzea kategorian. Gipuzkoako Bazkondeak eskaintzen ditu sariak, eta epaimahaiaren arabera, "bere sektoreak etxeko merkatuan bizi duen krisiari erantzuteko nazioartekotze estrategiagatik" eta "bere produktu ikuspegia Europako merkatuaren errealitatera eraldatzeagatik" jaso zuen saria enpresak.

Egoitza Urrestillan duen enpresaren merkatu nagusia Frantzia dago egun, eta presentzia handia du Espainiako zein Italiako merkatuetan ere.



### **SAN JOSE EGOITZA MOBILIZAZIOETARA, ABUZTUAN**

Abuztuaren hondarrean, San Jose egoitzako egoiliarrek, senideak eta langileak elkartu eta protestak hasi zituzten. Egoiliarrei "zerbitzu duina" emateko "errefortzuak" behar dituztela aldarrikatu dute ordutik, eta askotariko mobilizazioak egin dituzte beren eskaerak zabaltzeko. Azaroan, esaterako, herritik Gipuzkoako Batzar Nagusietara eraman zituzten beren salaketak, eskaerak eta aldarrikapenak.





### **LANDAKANDARI AGURRA, IRAILEAN**

Irailaren 25a egun tristeza izan zen trikitiaren munduarentzat, Ramon Zubizarreta *Landakanda* hil baitzen, 88 urte zituela. 18 urterekin panderoa jotzen debutatu ondoren, Euskal Herriko trikitixaren munduan oso ezagun bilakatu zen Landakanda, Iñaki Garmendia *Laja* oholtoa gaineko bikotearekin batera. Trikiti doinuaz agurtu zuten pandero jotzailea, Andre Mariaren Jasokundeko parrokan.

### **FLOREAGAKO IGOGAILUA, URRIAN**

Floreaga auzoko irisgarritasuna hobetzeko, eskuartean duen proiektuaren lehen faseko lanak gauzatu zituen udalak urrian: Floreaga Ikastetxearen eta Aizkibel kalearen artean igogailua jarri zuen martxan. Lanak hasi eta bost hilabetera inauguratu zuen erakundeak igogailua, Floreagako hainbat bizilagunekin batera.

Guztira, bost fase ditu auzoko irisgarritasun proiektuak, eta lehenengoa amaituta, Aizkibel kaletik Zuazola kalera joango den bigarren igogailua egiteko konpromisoa hartuta du erakundeak.





### **DANBORRADA, AZAROAN**

2020ko etenaren ondoren, helduen danborra egin zuten azaroaren amaieran. Azaroaren hasieratik hura prestatzeko lanetan ibili ondoren, COVID-19ak ezbaian jarri zuen danborrada azken unean, baina azkenean, aurrera egitea erabaki zuten. Ohi bezala, herriko txokoak hartu zituzten ehunka danborjolek, baina ez ohiko normaltasunean; protokolo zehatz bat jarraituz eta maskarak jantzita astindu zituzten atabalak.

Sanandresen bueltan egin ohi dute helduen danborrada herrian, baina izurriaren bilakaerak eraginda, jaien atarian festak bertan behera uztea erabaki zuten antolatzaileek. Bigarren urtez jarraian, ez zen ohiko posturik eta ekitaldirik izan herrian.




### **OLETAN HAIZE ERROTAK JARTZEKO PROZEDURA, ABENDUAN**

Azkoitia, Zumarraga eta Urretxu artean dagoen Oleta mendiaren gainean lau haize errota jartzeko prozedura abiatu zuen Green Capital Development 65 SLU enpresak. Haren asmoa da Buruzai parke eolikoan lau aerosorgailu jartzea, horietako bat Azkoitiko lurretan. Parke eolikoaren bidez energia eolikotik energia elektrikoa ekoizteko instalazio baimena argitaratu zuten Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. ■■■



# AZKOITIAK

*bat gehiago*



**BATU MAXIXATZENEN PROIEKTURA,  
BATZEN GAITUENA GARA!**

Egin zure ekarpena: [bazkide@ukt.eus](mailto:bazkide@ukt.eus) - 943-81 38 41

# Lokartuak



SARA RODRIGUEZ

**N**ahasmendu mentalen igoera, suizidio zein saiakera tasa larriak eta psikofarmakoen gehiegizko kontsumoa. Pandemia baino lehen ere baziren; orain, okerrera egin dute.

Tabua. Estigma. Egungo sistema kapitalistak buruko osasuna pribilegio izatea dakar, osasun publikoaren zerbitzuak urriak eta kaltegarriak baitira. Hogei minutuko kontsultak eskaintzen dituzte psikiatrian, eta urgentzizkoa izanagatik, itxaron egonaldiak hilabete iraun dezake. Gainera, diagnostiko orokortuak egiten dira; noski, medikazio jakin batekin datozenak. Medikazio jakin horien inguruan ari garenean, ezinbestekoa dugu atzean dauden interes ekonomikoak azaleratzea.

Farmazia industria izugarri aberatsa eta botereduna da, eta osasun sistema bortizki usteldu du azken urteotan; medikazioak ikertu, onartu eta errezetatzeko garaian jarraitu beharreko prozedura guztia manipulatu du. Datu zientifikoak manipulatuaz gain, sisteman eragina izan dezakeen ia edozein pertsona diruarekin erostea dakar, osasun ministroak barne. Peter C. Gøtzsche mediku, biologo eta ikertzaile ospetsuak ere hori guztia salatu du.

Farmazia industriaren eta botiken inguruko hainbat lan plazaratu ditu Gøtzschek. Haren hitzetan, psikiatriaren arloa bortizki sinplifikatu da, eta horren eginkizun bakarra farmazeutikek emandako botikak errezetatzea da, hartzailearen onurarako izango den edo ez kontuan hartu gabe. Antipsikotikoak, antidepressiboak eta antisolitikoak dituzten kontrako efektuei erreparatu gabe errezetatzen direla dio hark.

Egungo psikiatria medikaziora mugatzen da, jendeak farmako horien onuren eta kalteen inguruko informaziorik ez duela. Gøtzschek argitaratu gabeko ikerketak irakurtzea lortu zuen, eta orduan konturatu zen industria farmazeutikoak, batzuetan psikiatreek ere, saiakuntza klinikoak manipulatu zituztela.

Psikofarmakoak sistema kapitalistaren erraminta gisa ulertzeko, egun jasaten dugun kontrol sozialari begiratu behar diogu. Psikofarmakoen erabilerarekin, sistemaren errua den testuinguru prekario, miserable eta zapaltzaile batek ekarritako arazo edo nahasmendu mentalak, norbanakoaren arazo indibidualekin eta genetikoekin lotzen dituzte. Modu horretan, negozio den "soluzio" bat aurkezten digute, eta bestelako irtenbiderik gabe hura kontsumitzera behartzen gaituzte. Horrela, farmazeutikak aberasten jarraitzeaz gain, medikazioaren eta diagnostikoen estigmatizazio eta trataera txarren ondorio, osasun mental ahula duen jendarte indibidualista bati bidea irekitzen die. Borrokarako eta kontzientzia garatzeko, zailtasun handiago dituena. Lokartua dagoen gizartea, gauzak aldatzeko eta zapalkuntzei aurre egiteko, indarrak eta gogorik ez duena. ■■■

## FARMAZIA INDUSTRIA IZUGARRI ABERATSA DA, ETA OSASUN SISTEMA BORTIZKI USTELDU DU



# MARKETIN ESTRATEGIAK



- MARKETIN ETA KOMUNIKAZIO PLANEN DISEINUA ETA GARAPENA.
- ONLINE ETA OFFLINE ESTRATEGIAREN PLANIFIKAZIOA ETA EXEKUZIOA.

**GUKA**  ZERBITZUAK

# Alde erantzira



AITOR ARRUTI

**E**goskor ederrak omen gara euskaldunok. Esan izan digute harri jasotzeko hobeak garela gu maitatzeko baino, sexu-jolasa gutxiegi praktikatzen dugula guk, hala bota digu behin eta berriz hainbat jakintsu ustekok, esan orduko bere neurosiak agerian utzi dituela konturatu gabe. Eta gutako askok sinetsi egin ditu gure nagusi sentitzen direnen konplexuz betetako mezu zital horiek.

Euskarak ez omen du eguneroko bizitzarako balio. Agintari batek orain dela berrogeita hamar urte inguru esan zuen gure hizkuntzak ez duela fisika nuklearra azaltzeko balio. Lasai asko esan zuen gainera, ez fisika nuklearrik ez euskararik jakin gabe, eta gutako askok presidente dotoreari sinetsi zion, otzan, autoritatez jantzita azaldu zelako bakarrik.

Bi euskaldun dauden lekuan, berehala pizten omen da liskarra. Hori kontuan hartuta, gure hobe beharrez noski, hiru milioi lagunera iristen ez den euskotarren herria hiru administraziotan banatu digute. Eta gutako askok uste du herrialde propioa izanda baino hobeto gaudela horrela, badaezpada ere.

Aurrera doan herria omen da gurea. Gero eta ume gehiago entzuten ditut kalean erdaraz hitz egiten. Disney, Netflix eta

osterantzekoak euskaraz izateko sinadurak biltzea komeniko da berriz ere, baina etxean euskararen hauspoari eragin ezean, umek nekez hartuko dute arnas euskal airean, eta beste hauspo batzuk izango dituzte bizigai.

Esanak esan, euskaldunok asmatu ere egin dugu hainbat kontutan, geure egoskorrean. Edozertarako balio duen hizkuntza bat maitatzea zer den erakutsi diogu ikasi nahi duenari, gutako asko horretan bat izanez, etorriak etorri, joanak joan, nahiz eta atzerantz eginda aurreratu sarri, arraunean bezala, nola kostaldeko euskaldunak, hala lehorrekoak.

Hemen hauetako jendeak hizkuntzari dagozkion kontuetan errazera jo izan baldin balu, orain irakurtzen ari zaren hitz hauek ez zenituen euskaraz leituko, herriko hizkuntzan, herriko hedabidean.

Hobe bai gauzak alde erantzira egiten jarraituko bagenu, geure burua maite dugun egoskor ederrak izanez. ■■■

**ETXEAN EUSKARAREN  
HAUSPOARI ERAGIN  
EZEAN, UMEEK NEKEZ  
HARTUKO DUTE ARNAS  
EUSKAL AIREAN**

## Bertsoa paperean

GAIA: COVID ziurtagiria.  
Izena. Asier Garate Alkorta.  
Doinua: *Haurtxo txikia negarrez dago*.

### Azken urtean txertaketaren

kanpaina digute saldu gutako askok esango dute honek zentzurik ba al du? Nahiz ta goikoek eman beharreko pausoak garbi azaldu ziurtagiria eskatu arren hemen inor ez da salbu.

### Azkeneko bi urte hauetan

hainbat olatu ta laino batzui burua iritsi zaie ia-ia zoratzeraino txertoarekin hemen jendeak badauka hainbat engaino derrigortzea ez al zen hobe lege hau jartzea baino?



# ikastola

HEZKUNTZA ERALDATZEN



azpeitiko  
**ikastola**

ikasberri koop.e.

Loiolako Inazio hiribidea 26

20730 Azpeitia

Tel.: 943-15 12 46

[ikasberri@azpeitikolkastola.eus](mailto:ikasberri@azpeitikolkastola.eus)

[www.azpeitikoikastola.eus](http://www.azpeitikoikastola.eus)



## 2022/23 IKASTURTEA

### ATE IREKIAK

**URTARRILAREN 12AN**

**ASTEAZKENEAN, 17:30 ETIK 19:00 ETARA**

### MATRIKULAZIO EPEA

**URTARRILAREN 17 TIK 28 RA BITARTEAN**

## ATE IREKIAK: zatoz ikastola ezagutzera!



### LEKUA

Ikastolako HHko sarrera

### EGUNA

Urtarrilak 15 eta 22

### ORDUA

Aurrez izena emateko deitu ikastolara

Tel.: 943-85 06 46 / 688 87 34 52

**MATRIKULAZIOA KANPAINA: Urtarrilak 17-28**

**MILAR  
LARRAMENDI**

Etzetresna elektrikoak

  
**Cooking  
& Chef**  
EUKALDE GUNEAK

**dyson v8**

**animal**

**XURGAGAILUA**

**Lehen 399 €**

**Orain 349 €**



**dyson** ETXEAK DITU MERKATUKO  
XURGATZAILE ONENAK,  
eta **MILAR LARRAMENDIN**  
BAKARRIK AURKITUKO DITUZU

Julio Urkixo, 16 • AZKOITIA • 943-85 18 97 • [www.milar.eus](http://www.milar.eus)



**TK**

**KOPISTEGIA**

Inazio Iriarte, 1 • 20720 **AZKOITIA** • (Gipuzkoa)

Tel.: 943-85 20 52 • Faxe: 943-85 20 91

[j.artetxe@fkkopistegia.es](mailto:j.artetxe@fkkopistegia.es)